

AURKIBIDEA

Laburpena. Resumé. Resumen	9
Patri Urkizu, Aitzin-solasa	11
SENPEREKO KANTU XAHARRAK.....	19
I. Dios te salve	21
II. Errakozu ene partez milaka goraintzi.....	25
III. Eskual Herritik huna jinik	26
IV. Elizondoko partida.....	28
V. Biba Senpertarrak	30
VI. Desafioa	32
VII. Eskualdunak.....	34
VIII. Urrezko ezteiak	36
IX. Ur haundia	37
X. Larrungo trenak	38
XI. Ur xuri	40
XII. Pettan klamera	42
XIII. Khilo egilearen kantuak	44
XIV. Egurra nuen Tonbako errekan	46
XV. Hunen bizimodua Senpere herrian.....	47
XVI. Oraingo neska gaztien	48
XVII. Mila bederatzi ehun eta berrogeita biga	50
XVIII. Egundaino holakorik	52
XIX. Andre alarguna eta.....	53
XX. Urki zelaiko punta	54
XXI. Pepa eta Koakin	55
XXII. Lehengo batean	56
XXIII. Usoa eta Amerikanoa	58
XXIV. Ezkontzeko hasita	60
XXV. Ekituen kantuak.....	62
XXVI. Ene semiak, ez zaiztela ostatuetan abusa	64
XXVII. Neskatxa gazte	65
XXVIII. Kantore berri xarmant batzuek	65
XXIX. Hogeitalau urtetan	66
XXX. Mila bederatziehun eta hogoita zazpian	67
XXXI. Arotz abil bat	69
XXXII. Kristau bekatorea azken orenean	70
XXXIII. Hemeretzi mende ta erdi	71
XXXIV. Mixel Larralderen hilketa	72
XXXV. Beholako hilketa	73
XXXVI. Zortzi eta lau hamabi	75
XXXVII. Egun oroz	75
XXXVIII. Gazte nintzelarik	76
XXXIX. Sujet eder bat.....	78

XL. Nahi ditut kantatu zonbeit bertsu berri.....	80
XLI. Izan niz balenkonian.....	83
XLII. Lainopetik zauku izar on bat atera.....	84
XLIII. Aspaldiko denboretan, gauaz eta beti.....	87
XLIV. Oi, eper zango gorri.....	87
XLV. Eri naiz bihotzetik.....	88
XLVI. Iragan egun batez.....	89
XLVII. Haur batek amentsetarik erran daut.....	90
XLVIII. Sortu naiz Iparrean.....	91
IL. Sukar malina.....	93
L. Ene maitia xarmagarria.....	94
LI. Xori errexiñola.....	95
LII. Urso tortoila eta Amerikanoa.....	96
LIII. Haundizki kolpatua bihotzean dut min.....	97
LIV. Euskaldun neska bat Bordelen.....	98
LV. Denboraren ekintzak.....	100
LVI. Nausia, mutila eta erbia.....	102
LVII. Erioa.....	103
LVIII. 14ko Gerlako kantuak.....	104
LIX. Aleman Inperadore Guillaume.....	107
LX. Agorrilaren hasieran (14eko gerla).....	108
LXI. Francoren xaparrotian.....	110
LXII. 1936ko Espainiako Gerla.....	111
LXIII. 1936ko eta 1940ko Gerlak.....	114
LXIV. Bertso Berriak 1945ean emanak.....	116
LXV. Parisetik Aljeriako laguneri.....	118
LXVI. Bertso berriak anaieri.....	120
LXVII. Gazte hiltzera dohana.....	122
LXVIII. San Estebe egunean.....	124
LXIX. Laborarien kantuak.....	125
LXX. Gazte gira, gazte.....	127
LXXI. Bozak Senperen, 1953an.....	128
LXXII. Bozak eta esnea.....	131
LXXIII. Haitza.....	133
Lehen bertsolerroen zerrenda alfabetikoki emana.....	135
Eskerrak.....	137
Bibliographic Section.....	139

SENPEREKO KANTU XAHARRAK bilduma talde lana da, erran nahi baita, auzolanean burutu ahal izan dela hirurogeita hamahiru kanta ezberdin biltzen dituen liburutxo hau. Oxtikenekoak Elkarateak 1999 eta 2000 urtean bildutako uzta eder hau, alde batetik kaier zahar argitaragabeez hala nola zenbait liburuxka moldiztegituz (*Eskualdun kantariak*, 1922) baliatu da, eta oraindik bizirik dirauen herri xehearen memoriaz, bestetik. Patri Urkizuk idatzi du aitzin-solasa eta orden pixkat ezarri gaika moldaturik bertsoak, zeinen artean ohi bezala amodiozkoak eta irri-ziridunak diren gehientsuenak. Ez dira, dena den, mespretxagarri erdialdeko baladak eta bukaeraldean dihoazen gerrakoak eta politikazkoak. Patxi Intxaurrendietak, bertsoei zegokien doinua paratu du, eta beraz, erran daiteke Bidasoaz bi aldetako herritarren elkar lana ere badela, hau da, senpertarren eta lezoarren artekoa. Senpereko kantarien fotografiaz horniturik dator kantutegi pollit hau, Eusko Ikaskuntza paratzen ari den *Euskal Kanta Guztiak* bildumaren aitzindari.

La collection SENPEREKO KANTU XAHARRAK (Vieilles chanson de Saint-Pée sur Nivelles) est un travail collectif promu par l'association Oxtikenekoak Kultur Elkartea. Les soixante-treize chansons qui constituent ce recueil proviennent aussi bien d'anciens cahiers inédits que de brochures déjà publiées (*Eskualdun kantariak*, 1922) ou sont toujours vivantes dans la mémoire des gens. Patri Urkizu a écrit le prologue et a fait un classement thématique des chansons: les sujets amoureux et satiriques sont les plus fréquents mais il faut aussi remarquer la présence de ballades et de chansons dédiées à la guerre et à la politique. La transcription de la mélodie des chansons est l'oeuvre de Patxi Intxaurrendieta qui complète ce travail de collaboration d'amateurs de vieilles chansons des deux côtés de la Bidassoa. Ce beau chansonnier est complété par des photos de chanteurs de Senpere et constitue un échantillon de la collection *Euskal Kanta Guztiak* que prépare Eusko Ikaskuntza.

La colección SENPEREKO KANTU XAHARRAK (Antiguas canciones de Saint-Pée-sur Nivelles) es un trabajo colectivo, es decir, que el trabajo en común propiciado por la asociación Oxtikenekoak Elkartea ha logrado reunir las setenta y tres diferentes canciones recogidas en este libro. Para su confección se han utilizado tanto antiguos cuadernos inéditos como uno ya publicado (*Eskualdun kantariak*, 1922) y canciones que aún perviven en la memoria del pueblo. Patri Urkizu ha escrito el prólogo y ha ordenado las canciones, clasificándolas por temas; entre todos ellos son mayoría, como es habitual, los de tema amoroso y los humorístico-satíricos. Son también dignas de tener en cuenta las baladas situadas en la parte central de la colección y las canciones dedicadas a la guerra y a la política, al final de la misma. La transcripción de la melodía de los versos es obra de Patxi Intxaurrendieta, y por tanto, puede decirse que el libro también es fruto de la colaboración de especialistas de ambos lados del Bidasoa, senpertarras y lezoarras. Este precioso cancionero se completa con fotografías de los cantores de Senpere y constituye una breve muestra de la colección *Euskal Kanta Guztiak* que prepara Eusko Ikaskuntza.



2000garren urteko uztaillaren 16an Senperen bigarren kantu zaharraren eguna, OXTIKENEKOEK antolatua.

Aitzin-solas

À mesure que les événements se succèdent la nouvelle du jour fait oublier celle de la vieille; et les productions de la Muse nationale, après être restées gravées quelque temps dans de mémoires privilégiées, se perdent sans retour au bout d'un petit nombre de générations. C'est pour dérober à ce grand naufrage ce qui nous reste encore de nos chants nationaux et de notre mélodie primitive que nous avons résolu de hasarder cette publication, malgré des difficultés de plus d'un genre.

(Augustin Chaho, "Chants Basques", *Trilby*, Bayonne, 1844)

SENPEREKO KANTU XAHARRAK bildumatxoarentzat aitzin-solasa galdezka etorri zait Oxtikenekoak Elkarteko Mixel Mendiburu, Jean Fagoaga Eusko Ikaskuntzaren Iparraldeko lehendakariaren konpainian, eta hain izan da manera pollita eskaerarena non ezinezko gertatu zaidan ezezkorik ematea, jakinaren gainean izan arren dudana denbora laburxko dela gaiak eskatuko lukeenarekin alderaturik.

Duela aspaldi euskal kantei maitemindu nindutela, –ez ote da hau gertatzen txiki-txikitan amaren magalean goxo-goxo gaudela entzuten ditugunean seaska kantak, jadanik?–, eta urteetan barrena joanez bereziki Iparraldeko kantei. Beraz, jaidura honek bultzaturik, badira urte batzuk hasi nintzela Iparraldeko literatur emaitzak, –hauen artean pastoralak eta astolasterrak–, aztertzen eta argitaratzen, baina bereziki bertsoak eta kantak.

Kantei buruzko lehen liburutxoak 1987an plazaratu nuen, Bordeleko Unibertsitatean lanean ari nintzelarik Jean Haritschelhar irakaslearen babesean, eta *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)* ezarri nion titulu bezala, eskuzkribuak frantsesetik zeramana euskaratuz. Badirudi lan honek harrera aski ona izan duela, zeren ez banabil oker, unibertsitatean esku-liburu gisara erabilia izan ohi den.

Geroxeago iritsi ziren *Lapurdj, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak I. Anonimoak; II. 1545-1900*, –aurrerantzean LBNZ–, liburu lodikote pareak *Etor* argitaletxearen eskutik. Hirugarrena, hots, XX. Mendeari

zegokiona bidean gelditu zen, bitartean edizio bultzatzailea heriok eraman baitzuen. Hauek, aldiz, merezi izan dute, kritika eskas eta gutxi den gure alorrean zuzenketa zenbait. Garestitxoia dela, gainera, omen. Ez dakit benetan hala denez, dena den, emanen nuke pilota txapelketako partidu bateko sarrera baino merkeago dela. Egia da, dudarik gabe, liburu bikoitz honetan edizio arazo frango ageri dela. Alde batetik, etorkizko kaiarren ondorio direnak, grafia ezberdinak adibidez, eta bertsoen aurkezteko moldea eta sailkapenarena bestetik.

Nola sailkatu behar dira kantak? Kronologiaren arabera? Baina nola jakin noiz sortzen den kanta bat? Egile izenen arabera, alfabetikoki, urte zehatzik ez dakigunean? Ala gaiaren arabera?

Azken irizpide honi heldu izan diogu Piarres Lafittek eta Luis Dassancek 1967an *Kantu, kanta, khantore* liburuan bildu 328 kanten hamaika sailen arabera. Anonimoak, edo egile ezagunik gabeko kanta bilduman, aurkitu ez nuenean izenik, bostehun kanta bildu nituen eta hogeai sail ezberdinetan banatu, amodiozkoak, ugariak zirenez, azken sailean ezarririk eta beste hogeai azpisailetan banaturik. Jakin, banekien, noski, kanta bat baino gehiago sail ezberdinetan ezar zitekeela, tema anitz uki baitzezakeen. Lehen liburukiko lauhun poema haiek, eranskinean Patxi Intxaurrandieta musikariari esker 159 aire ezberdin zeramatzaten, eta bigarrengo 366 poemek 73 aire, beraz orotara 866 poema eta 232 aire.

Xabier Amurizak, ere modu antzekoan aurkeztu zituen *Bizkaiko bertsoak, Bizkaiko bertsogintza. I. Izengabeak (1995), eta II. Izendunak (1998)*, baina ainerik gabe, batzuetan egin dituen sailkatze lanak aproposak eta egokiak direlarik eta bestetan ez hainbeste.

Anton Abbadiaren heriotzaren mendeurrena aitzakiatzat hartuz plazaratu genuen 1997an, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzaren eskutik *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma, 1851-1897*. Hemen 400 poema bildu nituen eta Patxi Intxaurrandietak 74 doinu. Denak, beraz, XIX. mendeko bigarren partekoak, 1991ean argitaratu bigarren liburukiaren zati bat osatzen eta zuzentzen zuela. Tamainak ez zigun utzi Lore Joko edo Koplarien Guduetara, norgehiagoka hauetara aurkeztu ziren kanta eta bertso guztiak sartzea.

Garbi dago, lau liburu hauetako anitz eta anitz bertso, argitaragabe zirelarik, euskal bertso eta kanten harrobia ugaritzen, handitzen eta aberasten joan dela, bertatik antologiagileek entresaka ederra eta lore-xorta politiki aukera dezaketelarik.

Lehenago eta geroago Euskal Herrian eta Atzerrian agertu izan diren Kanta liburuei buruz ikuspegi aski zabala eta zehatza ematen saiatu izan

naiz, uste dut, iaz Madriden UNED-en eskutik plazaratu nuen *Historia de la Literatura Vasca*-ren lehen kapituluan, eta bertara igortzen dut jakin-gura den irakurlea.

Bestalde, gaur egun badugu erraminta apart eta paregabea Julen Urkiza karmeldarrak prestatu digun katalogo gotorrari esker, –mila zazpirehun eta hogeita hamabost orrialde baititu–, *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*-n (1999), Iparraldeko Bertsogintza XX. mendean osatzeko.

Hau burutu bitartean, hau da, ikuspegi orokor eta bateratzaile batekin, lagungarri eta bidegile gerta dakizkiguke Antonio Zavalak plazaratu hainbat liburu, hala nola Juan Mari Lekuonak, herri bati atxikirik, eskura ezarri digun *Oiartzungo kantutegia bertako herri memoriatik* (1999) bezalako lanak, non ageri diren ere aldameneko herrietan ezagutzen diren kanta mordoxka.

Halaxe gertatzen da ere 1999-2000 urteetan osatu *Senpereko kanta xaharrak* bilduma honekin. Urrats interesgarri dela Euskal Kantutegi Osoa bideratzen den bitartean, azken hau, noski, inoiz oso-osea ez dela izanen dakigun arren. Noizko, esate baterako, Agosti Chahren kantutegi argitaragabearen edizioa? Oraindik izkutuan edukitzea, inolako dudarik gabe euskal kulturaren kontrako bekatu larria da, aspalditxo Lafittek salatzen zuen bezala.

Gure *Historia...*-n egin dugun sailkapenari jarraituko diogu hemen Oxtikenekoak egin bilduma argitaratzerakoan, zenbait moldaketa egin izan dugun arren. Hona jarraian, beraz, gaika zerrendaturik kantak:

1. Erronda eta eskekoak: I.
2. Agur eta despedidakoak: II, III.
3. Jolasekoak: IV-VI,
4. Laudoriozkoak: VII-XI
5. Ofizioak: XII-XV
6. Irri eta ziri: XVI-XXXI
7. Erliziozkoak: XXXII, XXXIII
8. Baladak: XXXIV, XXXV
9. Amodiozkoak: XXXVI-LIII
10. Emigraziokoak: LIV
11. Filosofiakoak: LV-LVII
12. Gerrakoak: LVIII-LXVII
13. Politikakoak: LXVIII-LXXIII.

Ikus dezakegunez, beraz, hirurogeita hamahiru kanta hauetatik amodiozkoak dira gehienak –hemezortzi–, ondoren irri eta ziridunak

–hamabost, ia bildumako erdiak osatzen dutelarik bi sailen artean. Ondoren datozkigu kopuruz gerrakoak hamar, politikakoak sei, laudoriozkoak bost, ofizioakoak lau, jolasekoak hiru, filosofiakoak hiru, baladak bi, agur eta despedidakoak beste bi eta azkenik emigraziokoak, eta erronda eta eske kanta sailekoak bana.

Bilduma hau 1999-2000 urteetan osatu izan ahal da eta talde lana da dudarik gabe, auzo-lanean burutu baita. Alde batetik gorde izan diren kaier batzuei esker (Fifin Olandeikoarena, Hortense Arrate, Itsasuko Fagolako anderearena, Axeria deituarena) eta buru oneko hainbat kantariri esker, bestetik, zein alfabetikoki emanda honako zerrenda osatzen duten:

Aintciburu A., “Zabalztarra”,
Barnetxe Maite,
Bergara Ganixon “Txistu”,
Bidaxun,
Borda Pierrot,
Brave-Bessonat,
Dolosor Estebe,
Duhalde Noël, Itsasukoa,
Elhorga Laurent, Arbona Harretzekoa,
Etxamendi Jean,
Fagoaga Pello,
Fagoaga Frantxua “Apeztei”,
Fagoaga Gabi, Austeikoa,
Gariador Martin “chiffonier”, Arrangoizekoa,
Halsouet Ganix,
Halsouet Pello,
Harlouchi,
Ibarra Auger, Mikelungoa,
Irabola Martin, senpertarra,
Irastorza Estefana,
Irazoki Frantxua,
Iriarte,
Irigoien Petti, hazpandarra,
Irubetagoiena Antton,
Irubetagoiena Jako,
Itzaina Xabier,
Lazkano Jean Pierre,
Lazkabe Frantxua,
Millox J.B., senpertarra,
Minaberri Urkoikoa,
Mendiboure Paxkal,
Olatz Jean,
Saldies Joseph “Joxet Fatura”,

Sanoki,
Sarasola Sebastian,
Saratarra,
Soudre Jean Pierre "Istilartekoa",
Soudre Kattin saratarraren ama,
Tapia J.B., Ganixabordekoa,
Tuculet Marie Jeanne,
Urbistondo Sara Ihteikoa,
Yarzabal Xalbador "Ibarrun Goietxea",
Zamora Benane.



Marie Jeanne Tuculet

Denei gure eskerrik beroenak. Eta ziurren ahantzi dugun besteren bati ere bai. Beraz, esan dugun bezala, talde lana izan da, eta ez da ttikia Oxtikenekoak kultur elkartekoak egin duena. Guk bilduman orden pixkat eta zenbaki zenbait ezarri ditugu irakurleak hobeto dasta ahal izan ditzan, eta Patxi Intxaurrendietak, –beti laguntzeko prest daukadan adiskideak, lanpeturik izan arren–, doinuak ezarri dizkigu, ez seguruen Senpereko kantarien araberrako aireak, –beste baterako uzten dugun lana–, baina bai irakurleak gutxi goiti-beheiti bere kasa xaramela ditzan.

Batzuek egile ezagunenak dira eta besteak ez hainbeste. Adibidez, Otsalderen (1815-1897), *Khilogilearen kantuek* eta *Pepa eta Koakin* kantak ageri dira, azken hau osatuagoa eman dudalarik LBNZ-ko liburuan, baina horrek berak adierazten digu, aldaketak eta guzti Otsalderen arrakasta zein haundia izan den mendeetan barrena. Beste batzuetan, esate baterako, Beholako guardaren hilketa kontatzen den baladan, ez da esaten norena den, dakigunean Jean Moulrier "Oxobi"rena dela eta 1922an jada *Eskualdun Kantariak* liburuxkan moldiztegiratua. Kasu honetan, ordea, interesgarria da nola herri memoriaak aldatzen dituen kantak eta hitzak. Ikustea nola konprenitzen ez dituenean zenbait hitz bere kasara asmatzen dituen. Adibidez, mila bederatzirehun eta hogeitabiko edizioan kantak honela diosku:

*Gauak ardura Otsailean hotz,
aurten hegoa maiz hari:
Adanak lore, mertxikak ere
aitzinka primaderari... [LXI, 5]*

Ohiko diren naturari eskaini lirika bertsoak, –Manuel Lekuonak dekoraziozko poesia deitzen zuena–, tartekatzerakoan trajerian, ordea, kantariak ez bide ditu konprenitu, edo ahantzi egin ditu, kasu honetan Pierrot Bordak, eta beste honakoak asmatu dizkigu:

*Gauak ardura hotz, aurten negua maiz ari,
Mertxikak lore andanak ere aitzinka primaderari. [XXXV, 5]*

Non ikusten dugun *hegoa* hitzak *negua* eman duela eta *adanak* (edo *aranak*) *andanak* bilakatu dela zentzua aldatuz.

Jakina den bezala XV. mendeaz geroztik gurean, eta *Altzak ez dū bihotzik* khantore ezagunaz edo antzekoez geroztik, ugari izan dira hemen eta Europan zehar hiltze ixtorioak, baladak deitu izan direnak tradizio ingelesean. Hauek ixtori hunkigarriak kontatzen dituzten kantak dira, non hitz berriak aide zaharretan txertatu izan ohi diren, eta non askotan melodia soil batek kanta anitzetarako balio izan ohi duen. Orritxotan inprimaturik, sos gutxiren truke salduak, koplariak berek herriz-herri, merkatuz-merkatu eta feriaz-feria kantatzen, zabalitzen eta saltzen zituzten... garaiko kazetaritza musikala moldatu izan zutelarik.

Beholako heriotzaren bertsoan ikusi dugun bezala, molde ezberdinetan aurkeztu izan dira hitzak, eta esan beharra dago Iparraldeko ohitura eta usuarioa Hegoaldekoaz ezberdina izan dela, zeren hemengo zortziko txikiak (7+6) lauko bezala aurkeztuak izan dira han, errima bakarreko hamahiru silabako bertsoleerroetan, hain zuzen, eta zortziko nagusiak (10+8) lauko luzeetan, hots, hemezortzi silabako bertsoleerroetan. Eta hauexek dira gainera bertso molde gehientsuenak osatzen dituztenak, hamahirukoek % 45a inguru eta hemezortzikoek % 25a, horrela bien artean % 70a osatuz, hau da, hirutik bi. Ez da falta, noski, beste molderik, edota konbinazio aski politik, non koplariak bere antze eta artea erakusten digun gaiari hobeto dagozkion egitura berezietan.

Gerra, -14eko Gerla Haundia, 36ko Gerra Zibila, 39ko Mundu Gerla, Aljeriako Gerla, desertoreak-, eta Politikari dagozkion bertsoez itxi dugu bilduma, eta ez interes ttikiena dutelako. Jada Leizaola kritikariak bere *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca* (1974) liburuxoan azpimarratzen zuen, nola euskaldunek, eta hauen artean jende xume diren koplariak, betidanik maite izan dituzten historia gertaerak kantatzea, eta garrantzi handia eman dieten. Nola eguneroko gauza eta arazoez gain, sufritzea suertatu zaizkien gerlak eta politikariak beti kezkatu izan dituzten, eta nola bizi esperientzia zuzenak txertatu ukan dituzten kronika handiago eta zabalago batean, detaile ttipiak koadro unibertsalagoan. Eta, noski, bertso hauek, dudarik gabe literatur emaitza bezala baloratzeaz aparte, gizarte maila ezberdinen gogoeten historiarako, antropologia eta etnologia estudioetarako benetan garrantzi handikoak eta ezinbestekoak dira.

Dena den, ezin dugu ahantzi lehen-lehenik eta hastapenetan kantatzeko plazera dagoela, gurea bezalako herrian, Joxe Mendiaguen duela ehun urte zioskun bezala Buenos Airesen plazaratu bere *Eskualdun kantuak* (1900) liburuxoan:

*Khantuz sorthu naiz eta khantuz nahi bizi,
Khantuz igortzen ditut nik penak ihesi.*

Penak ezezik, edo hauek alde batera utziz, hor dago denen esku kantatzeak berez dakarkeen atsegina Martine David eta Anne-Marie Delrieuk bere *Aux sources des chansons populaires* (1984) lanean erreibindikatzen zuten bezala, kantatzeko eta zerbait kontatzeko gogoia eta gozoa, atsegina eta plazera.

Amaitzen dut, beraz, ene hitzaurre xume hau desio honekin. Oxala senperetar, euskaldun eta mundu orori kantu bildumatxo honi esker pitz lekion beren oroimena, berri lezan zerbaitto bere kantutegia eta ahalik gehiena goza lezan.

Bibliografia erreferentziak

- AMURIZA, X., 1995, 1998, *Bizkaiko bertsoak. Bizkaiko bertso-gintza. I. Izengabeak. II. Izendunak*. Bizkaiko bertsolari elkarteak. Bilbo.
- DAVID, M. & DELRIEU, A.-M., 1984, *Aux sources des chansons populaires*. Belin. Paris.
- Eskualdun kantariak*, 1922, Bayonne, Lasserre.
- LAFITTE, P. & DASSANCE, L., 1967, *Kantu, kanta, khantore*. Bayonne.
- LEKUONA, J.M., 1999, *Oiartzungo kantutegia bertako memoriatik*. Oiartzungo udala.
- MENDIAGUE, J., 1900, *Eskualdun kantuak*. Zazpiak bat. Buenos Aires.
- URKIZA, J., 1999, *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*. Markina.
- URKIZU, P., 1987, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma (1798)*. Durangoko udala.
- URKIZU, P., 1991, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak, II. 1545-1900*. Etor, Donostia.
- URKIZU, P. et al., 1997, *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma. 1851-1897*. Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- URKIZU, P. et al., 2000, *Historia de la literatura vasca*. UNED. Madrid.

**PAGINA A SUSTITUIR
PONER PORTADILLA**

I

Dios te Salve

Di - os te sal - ve, on - gi e - to - rri Gau on Jain - ko - ak di - gue - la
 Gau on Jain - ko - ak di - gue - la e - ta Ur - te o - nean sar gai - tza - la.
 Ur - te xahar a - ka - ba - tze - rat Be - rri - ra goa - zen sar - tze - rat
 Na - gu - si jau - na hel - du gai - tza - zu Ur - te on de - si - ra - tze - rat.

1. Dios te salbe ongi etorri,
 Gau on Jainkoak diguela,
 Gau on Jainkoak diguela eta
 Urte onean sar gaitzala.
2. Urte xahar akabatzerat
 Berrira goazen sartzerat,
 Nagusi jauna heldu gaitzazu
 Urte on desiratzerat.
3. Etxe huntako nagusi jaunak
 Badaki ongi lanean,
 Kapable baita irabazteko
 Parisko tribunalean.
4. Etxe huntako zurubi
 Maileak ditu hamabi,
 Etxe huntako etxeko alaba
 Ama birjina iduri.
5. Etxe huntako etxeko andria
 Aitu omen da deneri,
 Emanen duela mila libera
 Kantari heldu denari.

6. Hiru ta hiru sei dira,
Bertze seiekin dotzena,
Helduen urteko nahi nuke jakin
Haur ttipi hoi en izena.
7. Zintzurretik egarria
Aspaldi zaut etorria,
Hemendik hurbil da iturria
Bainan ez arno gorria.
8. Zapata xuri paperez
Uria denian baterez,
Nagusi jauna erran gaitzazu
Sartu behar dugun ba ala ez.
9. Pareta goiti sagua,
Haren ondolik gatua,
Etxe huntako monerarekin
Ez dihau beteko zakua.
10. Ate xokoan oilo bi,
Batek bertzea iduri,
Etxe huntako etxeko andreak
Ama birjina du iduri.
11. Etxe ondoan arroka,
Hasen gainean karrosa,
Etxe huntako etxeko alabak
Iduri baitu larrosa.
12. Zapata xuri paperez,
Zuria denian baterez,
Etxe huntako mutil gazteak
Ilea urre kolorez.
13. Senditzen zaitut senditzen,
Ari zarala jeikitzen,
Zapatattoak soinian eman-ta
Salaren gainean kurritzen.
14. Ematekotan emazu,
Edo bertzenaz errazu,
Zeren mendian elurra ari baitu,
Zangoak hozten zaizkigu.

15. Etxeko andre mondrongo,
Hik ez dun asko emango,
Hik emandako limosnarekin
Ez dinau asko edango.
16. Ibilki gara gau xori,
Urtetik urte xintxoki,
Aurten ere zuen alaigarri
Hemen gaituzue Sanoki.
17. Hauxe da usaia galtzen,
Dios te salbe kantatzen,
Nahi dugu piztu usaia hori
Bertzeek segi dezaten.
18. San Silbestrek igortzen gaitu
Izar eder bat gidari,
Haren ohoretan ibil gaitezen,
Gau eder huntan kantari.
19. Etxe huntako etxeko andria
Aitu omen da deneri,
Emanen duela mila libera
Kantari heldu denari.
20. Dios te salbe, bakalau jale,
Zazpi eta lau hameka,
Odoikirikan ez balinbada,
Ibual zaukula lukainka.
21. Ematekotan emazu,
Bertzenaz ezetz errazu,
Ate ondoan hotzaz hiltzerat
Amak ez gaitu bidaldu.
22. Pareta goiti sagua,
Haren ondotik gatua,
Etxe huntako monedarekin
Ez diau beteko zakua.
23. Hiru ta hiru sei dira
Bertze seiekin dotzena
Helduen urteko nahi nuke jakin
Haur ttipi horren izena.

24. Hasten naiz hasten kantatzen,
Urte berriaren laudatzen,
Etxe huntako nagusiari
Lizentzuaren galdatzen.
25. Itsasoan eder xalanta,
Aintzin gibebez balanta,
Etxe huntako etxeko andreak
Ze bular arte xarmanta.
26. Errekaldean lizarra,
Zeru gainean izarra,
Etxe huntako etxeko jaunak
Urre gorritz du bizarra.
27. Etxeko alaba ardita,
Ederra eta pollita,
Eri bat ere senda litake
Zuri begira jarrita.
28. Milesker eman duenari,
Eskerrak Jainko Jauneri,
Ats egin duzue gure moltsari,
Bihotzez urte on deneri.

*SANOKI (lehena eta 20-28), Estefana IRASTORZA (10-15).
Jan Pier LAZKANO (2-10)*

II

Errakozu ene partez milaka goraintzi

Errakozu ene partez milaka goraintzi,
Zure adiskide «Muziu» Barnetxi,
Sarakoari,
Ongi pena dudala segurki,
Egundaino ez dudala hura baizik utzi!
Satifatu gabe ederki!
Kausa zer den berak badaki...
Neskatila gaztekin omen dela bizi,
Libertituz ederki.
Oraino ez da libertatu aski,
Ez eta 're ez ditu kitatu 're naski.
Haren begiak hain dire argi,
Izarra iduri!
Eta koloreak, ehun ostoko arrosa bezain gorri.
Neskatila gazten ilusigarri...
Karesatzen ditu ederki,
Denboraz...Balía bedi...

Ganizon BERGARA «Txistu»-k eskainiak.

Kantu xapelketa batean Txistuk kantatu zuen kantu hau.

Apezak ez ziren gostura gelditu...Saillapenean, seigarren atera zen... Hor ikusi zuen kantuz behar zuela aldatu eta ondoko igandean, lehena ateratu zen, Axularren kantuarekin.

III

Eskual Herritik huna jinik

1. Eskual Herritik huna jinik hemen bagirade hainitz,
Haurridetarik orotarik malurusena ni bainiz,
Bertze koblarik eman nio ni orai herrian banintz (bis).
2. Aita amak nigarretan beren hurrez doloretan,
Plazer onik ez daiteke oraiko denbora huntan,
Horiek oro jasan daizke Jaun onaren ohoretan (bis).
3. Adios aita ama anai arrebak, bizi zaitezte trankilki,
Presuna gaztiak behar du denbora nonbeit ibili,
Ibiltzen denak badaki pena plazerraren berri (bis).
4. Ni sortzeko egunetan gauza frango bazterretan,
Arribatu nintzanian munduko portalietan,
Miseria arribatu zaldiz zela bridetan (bis).
5. Nik maitiari igorri letra batean goraintzi,
Bizi dadien trankilki jinen nintzela laburzki,
Hura gogoan nagolarik oren guzietan beti (bis).
6. Izan banu eskolarik, ixkiriutzen molderik,
Engoitik izanen nitzen ederki aberasturik,
Miseria kitaturik andre eder bat harturik (bis).

Olandeiko Fifin-en ahotik

1 ^{estual heritico}
 Estual heritico luna ygenak
 siemen bagirade harririk,
 harririk detarik orotarik
 amalurusena ni bairuz
 bertse koblaric emanio
 ni orai herrian basuz (bu)

2
 Ebita amak nigarretan
 Beren harririk doloretan
 plaser omik g dautetke.
 Oraino dembora unton
 horrec oro yasan daiz ke
 yagan onaren doretan (bu)

3
 Et dias aita ama anay aribak
 Bisi yauteste tranhillki
 Presona gastak behar du
 Dembora nonbat ibiti
 ibil ygen denak badaki
 Pena plaseraren berri (bu)

4
 Ni sortseko egundean
 Gausa frango basterretan
 Aribatu nintzarian
 munduko portalietan.
 Miseria arribatu

IV

Elizondoko partida

1. Huna bertsu berriak, nik orai emanak,
Kantuz erraitekotan plekarien famak,
Elgar ezin bentzutuz izan tuzte lanak;
Azkenean nausitu dire zaharrenak.
2. Mila bederatzi ehun hogoi-ta bigarrena:
Urte hau ainitzentzat zer orhoitzapena!
Irabaztailek plazer, galtzailek zer pena!
Bethi lanjer menean irriskatzen dena.
3. Larunbatarekin zen, abendoak bia,
Orduan jokatu da partidu handia.
Elizondon in zuen diruzko uria,
Bai eta proetxatu lapurtar jendia.
4. Partidu hau izan da izigarrikoa,
Bakan aditzen baita hau bezalakoa.
Trinketa hautaturik Elizondokoa,
Han eginen zutela guziek jokoa.
5. Dongaitz anaiak biak, Leonis ta Arce!
Partidaren finitzen lanak izan tuzte.
Gaztek galtzerik ere ez baitzuten uste,
Azkenean zaharrek irabazi dute.
6. Jean-Baptiste Dongaitz zen gizon famatua,
Ez baita maiz ikusten hoi bezalakoa.
Berrogoi urte eta ehun kilokoa,
Berdin, buruz nagusi, egin du jokoa.
7. Besoa hasi zaio pixka bat ttikitzen,
Gorputza pisutu ta ilea zuritzen:
Bainan halere ez da batere izitzen,
Azkenean badaki kintzea trenkatzen.
8. Partida egiletan bat zen Mendiondo,
Ez omen du ikusi nehor egundaino,
Horrela atxikitzen azken kintzeraino
Ondarrean Jean-Baptiste nausi zen oraino.

9. Hamar mila libera alde bakoxtetik,
Behar zuzten jokatu hasteraz geroztik,
Trebesak zenbat ziren Jainko onak zakik,
Galdu duten gaixoeke ere bai hargatik!
10. Ondoan banituen urgulutsu hainitz,
Oihu-garrasiaka xantza bildu nahiz,
Sekulan parada hoi jiten bazait berriz,
Begira egonen naiz bazterretik irriz.
11. Partida horren famak horra hor pertsutan,
Guziek kantatzeko Eskual-herrietan.
Nihor gertatzen bada ene beharretan,
Zerbitzaturen ditut denak lorietan.
12. Kantuen emailea Bastista handia,
Guziek dakitena, gizon bat noblia;
Pertsu berri emaiten parerik gabea,
Lanetik ageri da ofizialea.

J.B MILLOX, Senpertarra.



2000.07.16. Paxkal Mendiboure, Jan Battit
Tapia, Anita Ibarra-Bereau

Partida bana irabazia zuten eta finala Elizondon jokatzea erabaki. Partida trinketea mukuraino betea zela jokatu zen. Aldekoek eta kontrakoek bero bero esku zartak kintzeoro jotzen zituzten, karrikan zirenek ere. Diru asko jokatu zen.

V

Biba Senpertarrak



Sen - per - ta - rrek pi - lo - ta du - te a - rras mai - te.
O - ho - re fran - go e - re hor - tik bil - tzen du - te. Aur - ten bai - tuz -
te, bi mu - til gaz - te, bi ple - ka - ri haun - di.
"Cham - pion de Fran - ce" di(r)e - nak: Au - det - Be - has - te - gi.

Airea: *Aitak eman zerautan*

1. Senpertarrek pilota dute arras maite,
Ohore frango ere hortik biltzen dute,
Aurten baituzte,
Bi mutil gazte,
Bi plekari haundi,
«Champion de France» direnak: Audet-Behastegi.
2. Oroitzeko partida senpertarrendako,
Atarratzeko hura bide da izango,
Baziren asko,
Joanak goixko,
Ikusteko ongi,
«Champions» ateratzen Audet-Behastegi.
3. Aintzina Behastegik, gibeletik Audet,
Elgar ongi aditzen zoin den eder, laket
Aitor dezaket,
Nola norbaitek,
Zinez azkarregi
Suertatu zaizkote, Audet-Behastegi.

4. Partida finitu-ta, plazaren erdira,
Medailak eskuetan Ybar zen atera,
Medail bedera,
Musu bedera zioten ezarri,
Oihu eginez biba:
Audet-Behastegi, Audet-behastegi.
5. Senperen plekariak betitik badire,
Teofil, Santiago, eta Xabatene,
Sein, Betriene,
Peru, Nottari,
Iratzoki ere,
Hoiekin ta bertzeekin: Audet-Behastegi.
6. Gaur, oraino lur huntan izan bazen Matxin,
Goretxiko zintuzten bere ditxoekin,
Ordain ni naiz jin,
Bi pertsurekin,
Koblari txarregi,
Maneran kantatzeko, Audet-Behastegi.

Senpertar gazte batek, 1936an. Jan Pier SOUDRE «Ixtilarte»-ren eskutik.



2000.07.01. Austeiko Gabi Fagoaga, Frantxua Fagoaga "Apeztei", Bergara Ganizon "Txistu", Elhorga Laurent. Parejo soinu hartzailea

VI

Desafioa

1. Adixkide on bati baitiot hitzeman,
Denen gostuan ezin egina da bainan,
Pario bat politta izan da Urruñan,
Sujetaren graziak behar nau ereman.
2. Kanta hauen sujeta Beñat Ibarburu,
Ez ditu urte ainitz hogoi bat inguru,
Desafio bateri egin dio buru,
Diruak baino famak gehiago balio du.
3. Atxematen banaute makurrik deusetan,
Zertako hasi naizen holako lanetan,
Nehorrek ikusia erdi ametsetan,
Artikulu eder hau Girona kazetan.
4. Hiruetan hogoi kintal zuten hoiak karga,
Hamabi berriz horren ekartzeko orga,
Uztarraldi batean behar zen ailega,
Donibanen hartu eta Urruñarat entrega.
5. Huna hamasei urte behi baten adina,
Haren umeak berriz dozena egina,
Gaur horiek, ainitzek sofritu ezina,
Zeren eman baitiote sabeleko mina.
6. Zerbait gauza arrado gertatzen denetan,
Behi hori halaxe da hamasei urtetan,
Karga hori tiratzeko bide hortan bertan,
Adinez adin ezta bi nazione hautan.
7. Hirurogoita hamalau kintal zuten hoiak karga,
Bi kintalen propina hola aski bada,
Karga hori tiratzeko indarra behar da,
Horien paretzeko idirik ote da.
8. Euri tenpesta batek emanik bidean,
Hala ere kargarekin bazoan airean,
Urruñako zolako Ezpernen parean,
Bere alde bazuen dirua doblean.

9. Patarra hori goiti direlarik lotu,
Urruñako dorrean borts orenak jo ditu,
Berrehun aldiz bederen pausatzen egotu,
Pario finagorik ez zitaikkeen sortu.
10. Kargaren berdintzea gomeni nun nahi,
Nola gainbeheratekoan goitikoan ere bai,
Gizon jakintsuna da ongi gidatu nahi,
Itsu aurreko txarra ez ginduen zelai.
11. Aldian guti baian aintzinat pausuak,
Mitxa piztuko zuten aztaparren suak,
Itzain eta aziendak berdin gogotsuak,
Emak hor Ibarburu, biba behi gaizuak.
12. Gero bertzealderat biratu trebesak,
Irriskatu nahian beren interesak,
Moltsadun horieri eginik karesak,
Bertze aldi batekotz indarra gordezak.
13. Itzain gazteak lana egin du fuerte,
Karga bere burura entregatu arte,
Kontrarioa begira ez zela gain uste
Bainan kukuak hortan makur jo diote.
14. Zortzietan da beraz egin arribera,
Aziendak nekatuak aspertua bera,
Zonbeit badire ganak burua behera,
Zimurtu baitzaiote hor portamonera.
15. Jaunen jaunak nahi ditut nik errespetatu,
Bakoitzak bere idai norberak hautatu,
Primadera trixtea aurten egin baitu,
Kukuak ere ez du ainitzik kantatu.
16. Huntan uzten zaituztet agur eta adio,
Parioak berekin zerbait ondorio,
Irabazi duenak izan bozkario,
Ni ez naiz nehoin alde ezta kontrario.
17. Mila urte pasa ta bederatziehun,
Hogeita sei urte badoatzi urrun,
Bake sailduen alde bihotzez eskualdun,
Anbrozio Zenpelar eta Koxe Larrun.

VII

Eskualdunak

1. Nahi duzue jakin gure arbasoak,
Miaturik leihorak eta itsasoak,
Zergatik Kantabrian zitezken kokatu,
Toki hoberik inun ezinez kausitu.
2. Zeru gaina maiz urdin denbora maiz gozo,
Hiru laurdenak leihor bertzea itsaso,
Asko mendi aberats zelai gizenasko,
Non holakorik kausi urus bizitzeko.
3. Hortxet da eskualduna bere gain jarri,
Arrotzari ez dio deus ere kenduko,
Bainan ez nihor hurbil hartaz nausitzeko,
Nihola ez du nahi bertzeren azpiko.
4. Erromako armada lurra bentzuturik,
Heltzen da hunaraino gogoia suharrik,
Bainan Eskual herriak ez eman amorrik
Etsaia ihes doa ongi zafraturik.
5. Libertate maiteaz jabe gelditzeko,
Eskualdunak geroztik egin du lan asko,
Bera bere lurretan jainkoaz landa nausi,
Berak egin legetan nahi zuen bizi.
6. Espainan Gernikako arbolaren pean,
Frantzian lehenago haitzeko gainian,
Zer ikusgarri ziren eskualdun biltzarrak,
Han guzientzat berdin xuxentzen makurrak.
7. Eta horiek oro ametsak iduri,
Gure zuzen guziak dauzkute ebatsi,
Oi libertate saindu izar goibeldua,
Agian ez zaitugu betikotz galdua.
8. Hala hala zainetan odolik duguno,
Ez ahal darozkute nihork ebatsiko,
Gure mintzaira zahar parerik gabea,
Eta oroz gainetik gure sinestea.

9. Aspaldi bizi gare Kristoren legean,
Betitik sinetsirik jainko bakarrean,
Igantetan lorian gure Elizetan,
Guziak garelarik kantaz ari betan.
10. Aintzindariak hemen dire obeditzen,
Ez dueno manuak arima kolpatzen,
Halaber ohorezki zaharrak ekartzen,
Erromesak eriak gogotik laguntzen.
11. Marinel edo artzain edo laborari,
Lanean nekatuz da Eskualduna bizi,
Bainan halarik ere Eskualdun etxea,
Maiz ohatze pullit bat xoriñoz betea.
12. Eskual herri guzian, oi zer gazteria,
Maite dueno soilki bere sor herria.
Zergatik du sobra maiz bilatzen hiria,
Kaskoinduz ikasteko frango tzarkeria.
13. Bai egiaz eder da Eskualdun lerdena,
Su pindarrak begian zalurik doana,
Gerriko sedarekin boneta buruan,
Ezpartinak oinetan makila eskuan.
14. Eskualduneri beha besta egunetan,
Batzuek fandangotan bertzeak pilotan,
Ez da nihun josteta joko hoberikan,
Zertako bertzerik har horiek utzirikan.
15. Espainian Nabar, Bizkai, Alaba, Gipuzko,
Frantzian Baxe-nabar, Lapurdi, Xubero,
Zazpi herri hauk dire Eskualdunen toki,
Ez dezake parerik iguzkiak argi.
16. Biba beraz goraki, biba zazpiak bat,
Iduri dute kasik zeruko xoko bat,
Zazprietako seme Eskualdunak oro,
Gauden elgar maitatuz orain eta gero.

Olandeiko Fifin-en liburuxkatik

Huna 16 bertsutan, denboretan, zer pentsatzen zuten bertsolariak Euskal Herriaz eta euskaldunetaz

VIII

Urrezko ezteiak

1. Aire xahar batean pertsu bat edo bi,
Erraiteko Senperen orai zer den berri,
Zori ondun eguna zaiote etorri,
Amotz Olandegiko Robert ta Fifini.
Lara lara lara, Robert ta Fifini.
2. Berroita hamar urte direla ezkondu,
Semeak ta alaba dituzte izatu.
Lurrarekin borrokan hor dire aritu,
Zeruko Jainko Jaunak lagunduko ditu.
Lara lara lara, lagunduko ditu.
3. Agian ainitz urtez Robert eta Fifin,
Jaunak dautzuetela: zorion, atsegin,
Osagarri bat ona, omorearekin,
Maiz maiza dezagula kanta elgarrekin.
Lara lara lara, kanta elgarrekin.

Jean-Pierre SOUDRE «Istilartekoa».

IX

Ur haundia

Kosta aldetik, ez da urrun Elizondo,
 Harat heldu aintzin, hortxetan da Otsondo,
 Jaunaren nahiz, gertatzen da hor zerbeit arraro.
 Aire ona da eta bada zonbeit iturri:
 Bat jausten da kantari, denetaz deitua: Lapitxuri
 Bertze bat berdin Urdazubin beheiti,
 Agurrak egin eta Dantxarineari;
 Hor ditugu zoin urus: urak hor kurri.
 Nafarroan sortuak, Lapurdirat zauzku jautsi.
 Erdaraz «La Nivelle» izena diote ezarri.
 Lehen, Senperen ur hori deitzen zuten «Zarika»
 Gaur izen hortako landak, ez du urrun karrika.
 Uholdetan ibiltzen zaizkio arrainak igerika.
 Txomin Dufau, Senpertarra zen jaun hori.
 Herrian egon zen auzapez eta notari,
 Behin erran zautan neri: «Adixkide Panpi,
 Gure ur haundi hori, deitzen da Ur-zuri.
 Zoazi Utsalerat, beha zazu hor ongi,
 Urak, ez du kolorerik, dugu ikasi.
 Hor harrien gainean, ura dago zuri argi;
 Utsaletik lekora den kartier edo auzo hori
 Deitua izan da arras aspaldi: «Ur xuri»,
 Norbeitik gaizki irakurturik, deitzen dugu denek: Urguri.
 Urguri, Ibarrun, Helbarrun, sei zubiren jabe:
 «Utsalea, Zaldubia, Haroztegia biga badire,
 Zumabia eta Martikoenekoa tente,
 Hortik lekora, ur hori: «Ur-Hertsia» erraiten diote.
 Zarika, Ur-Zuri, Ur-Hertsia, zoaz itsasorat,
 Donibanen Urdazuriri eginez agur haundi bat.

*1998ko Uztaila, Jan Pierre SOUDRE «Istilartekoa», Olerki hau Hatsa
 elkarteari igorria, Ttipi Ttapan lehen aldikotz argitaratua.*

X

Larrungo tren

Airea: *Kattalin, ttuku ttuku*

1. Larrunen arratsaldian izatu ondoan,
Ametsetan ibili naiz, han bertze munduan,
Gauaz lo nagolarik deskantsu onean,
Ametsetan zeruan eta infernuan.
2. Solasean egon naiz han saratarrekin,
Aspaldi harat juanak ziren arimekin.
Atsegin zuten ni han ikustearekin,
Denek nahiz hemengo berriak han jakin.
3. Erran diotet nola laister izanen den,
Burdin bide berri bat eginga Larrunen,
Mendian gora dela karrosa iganen,
Zaldirik gabe denak airos eremanen.
4. Kontrabandistak, guardak bai eta artzainak,
Loriatuak hemen dagotzila denak,
Larrungo karrosa ikusi nahiak,
Hortan egiteko hor beren itzuliak.
5. Gero lezeaz ere nakote mintzatu,
Kanpotarra nola den horrat abiatu,
Jaun Kastillak duela guzia beretu,
Ustez hor behar duen orai aberastu.
6. Erran diotet horrat otomobiletan,
Heldu dela jendea egun beroetan,
Ongi goxo baita bai leze barne hortan,
Berotzen duelarik bertze tokietan.
7. Suzko karrosa hura, zer zen ez zakiten,
Holakorik ez baitzen ez lehen ikusten,
Denak nere berriek zituzten harritzen,
Ikusteaz mundua hola kanbiatzen.

8. Hortan akabatu da nere amets ona,
Airoski ibilirik edoietan barna,
Zaldi ta karrosarik izan ez diona,
Ibil dadila hola ahalik maizena.

X.X.X. Saratarra. Kattin SOUDRE IRIARTE Saratarraren amak kantatua.



Oxtikenea, 1999.07.11. I. go kantu zaharraren eguna

Aurten, 75 urte bete ditu Larrungo trenbideak. Orduko bertsuak dira. Harrigarria baldin bada ere, hor finkatzen dira Sarako bi diru-iturri nasaia; Larrungo tren ttikia eta leizeak.

XI

Ur Xuri

Ur xu-ri gai-ne-an zoin den e-der Sen-pe-re. Ho-gei e-hun jen
-dez goi-ti han bi-zi ga-re. Eus-kal-du-nak ga-
re o-rai-no a-le-re, se-gur na-hi e-re. Ta fe-de-rik ga
-be, eus-ka-ra-rik ga-be Sen-pe-ren deus ez ga-re.

Airea: *Iduzki denean zoin den eder*

1. Ur xuri gainean zoin den eder Senpere,
Hogei ehun jendez goiti han bizi gare,
Euskaldunak gare,
Oraino alere,
Segur nahi ere,
Ta federik gabe,
Euskararik gabe Senperen deus ez gare.
2. Lanoki heldu da Senpererat Urxuri,
Diolarik agur Amotze ta Urguri,
Olha, Olhasori,
Eta Hergarairi,
Plaza guziari,
Pasatzean Artzirin,
Gero Ibarruni, azkenik Helbarruni.
3. Plekariak ere betidanik badire,
Theofil, Santiago, Sein ta Xabatene,
Behaztegi erne,
Audeten lau seme,
Iratzoki berme,
Ondotik bortz seme,
Etxegarai barne, Borda ta Ottoloine.

4. Senperen izan da bertsolari ausarki,
Jaun erretor zena, jaun kalonje Zaldubi,
Ganix Donamarti,
Matxin bertsolari,
Georges Larretxeberri,
Ohore deneri,
Lou kaskoin Laurenzi eta bertze ainitzi.

Hitzak: Jan Pier Soudre iztilarte. Mikelungo Auger Ibarrek kantatua



2000.07.01. Austeiko Gabi Fagoaga, Frantxua Fagoaga "Apeztei", Bergara Ganizon "Txistu", Elhorga Laurent, Jeanne Ibarra-Bereau

XII

Pettan klavera

I- ra- gan i- gan- de ba-tez Sen-pe-re he- rri - an Ez- ki-lak din-
dan din-dan, e - li-za do- rre - an I - du-ri pri- ma- de- rak,
e - ma-nik lo- ri - an Xa- ra-me - la- tzen zu-ten go - ra-ki ai - re an.

Airea: *Oilarra kukurruka*

1. Iragan igande batez Senpere herrian,
Ezkilak din-dan din-dan, eliza dorrean,
Iduri primaderak, emanik lorian,
Xaramelatzen zuten goraki airean.
2. Igandea izanez, gateko mezarat,
Multzoka ari zen biltzen, jendea elizarat,
Din-dan beti ezkilak, alde orotarat,
Entzuten ere ziren, eliza barnerat.
3. Aldare gainak zuen ongi distiratzen,
Sasoineko loriek zuten inguratzen,
Usaiako mezatik, bertzerikan bazen,
Egun hortan elizan, zautan iduritzen.
4. Ohorezko lekuan kalonje Adema,
Nork ez du ezagutzen, jaun horren omena,
Senpertarra bera sortzez, herrirat zen jina,
Jaun apezpikuak zion emana ordena.
5. San Frantsesen oinetan, hauxe da arkua,
Arku horren azpian, baten jar lekua,
Usaian badakigu nortzu den horkoa,
Gure ustez, egungoan, norbeit handixkoa.

6. Sakristiatik jausten, nor da zanguen punttan,
Denez ezagutua, Erebeke Pettan,
Horrat gaten izanez, ainitz urte huntan,
Guk uste tronpaturik, arkuperat da gan.
7. Gorderik atera da, azkenean egia,
Pettan klaberarentzat, zela hori guzia,
Berrogoi-ta-bortz urtez, klaber izaitea,
Ez ote zuen bada, hori irabazia.
8. Jaun kalonje Ademak, irriño batekin,
Ongi goxoak ziren, goresmen onekin,
Urrezko kurutze bat, dio present egin,
Jaun Apezpikuaren, benedizioneekin.
9. Armada ederrena, ez dugu dudarik,
Krixto erregerena, ororen gainetik,
Soldadoa ezagun, bere medailetik,
Krixto erregerena bere gurutzetik.
10. Elizako klamera, gu denen artian,
Ainitz urtez oraino, zaitugu agian,
San Frantsesen gerizan, zure jar tokian,
Gozaturen zirade, zure ohorian.
11. Elizak zaitu eman, kurutze urrea,
Deus ederragorikan, munduan ote da?
Sari handiagoa zuri dago beha,
Idekitzen delarik zeruko atea.

Senpertar baten bertsuak (1934), Pello FAGOAGAk emanak

XIII

Khilo egilearen kantuak

1. Amikuzeko Gilen khilo egileak,
Etzetik kendu ditu bere langileak,
Sehi maiteak,
Zeren galdu dituen irabazbideak.
2. Ez dezake nion sal khilo, ardatza
Nagusitu baitzaio galtz-erdi orratza,
Moko zorrotza,
Ez da izertu nahi oraiko neskatxa.
3. Ele biltzen dabila, galtxoina eskuan,
Laneko gogorik ez baitu buruan,
Alfer moduan,
Oihal guti emanez kutxaren xokuan.
4. Gazte irule guti da Euskal-Herrian,
Bat ez dugu ikusten khiloa gerrian,
Ate egian,
Oi zer frendak horiek saltzeko ferian!
5. Oraino zenbait bada auzo herrietan,
Iruten ari denik berant arratsetan,
Bihotz minetan,
Hobek ez lagunduz behar orduetan.
6. Askotan altxatzen da amasoren boza,
Bainan hilobak ez du hartu nahi ontsa,
Lanerat lotsa!
Arantze gabe nahi bailukete arrosa.
7. Amak goizean oihu: jaiki adi haurra;
Ez-deia aski luze hiretako gaua?
Har zan haintzurra,
Itzuli beharra dun baratzeko lurra.
8. Alabak arrapostu ohetik gostura,
Bego bihar artino haintzurra,
Arte laburra,
Joan behar baitut egun goizik merkatura.

9. Zuri galdatzen dautzut, izeba Maria,
Laket leku ote da gaztentzat hiria?
Hain da egia,
Harat joaiteko badut ainitz gutizia.
10. Horra nola dabiltzan oraiko nexkatxak,
Lur lanetako dira sobera berratzak,
Oi alfer hotzak!
Akabo eginen du laster laborantzak.
11. Neskatxa gazte dena itxuraz da abil;
Esposatu berrian jaunarentzat umil,
Ondoan zarpil,
Galtzetako ziloak erdirat ezin bil.

Janbatit OTSALDE Bidarraitarra (1815 - 1897). Eskualdun kantaria liburuxkatik (Baiona, 1922, 118-119. Aire: Paxkal MENDIBOURE



2000.07.16. Arbona Harretxeko Laurent Elhorga

1878ko Sarako euskal bestetako OTXALDEK igorri zituen bertsuak.

XIV

Egurra nuen Tonbako errekan

1. Egurra nuen Tonbako errekan,
Gosta zitzaidan haren emaita orgetan,
Urka ere hautsi nuen errekan,
Sokaz loturik ekarri nuen errestan.
2. Neure egurra haltza eta haitza zen,
Gosta zitzaidan karga eskurat ekartzen,
Barnetik ere ainitz triste baintzen,
Andrea penetan ustez oihanean hil nitzen.
3. Laguna nuen Lekunberriko Piarres,
...
Haren andrea urrats guzian nigarrez,
Nun ote zuen bere maitea Piarres.

Ganizon BERGARA, "Txistu"-k eskainia.

Saran Usoteiko errekarari Tonbako erreka deitzen zaio. Egur lotak toki hortan egitea, beldurgarria dela erran diteke. Bertsu gehiago ere badira.

XV

Hunen bizimodua Senpere herrian

1. Hunen bizimodua Senpere herrian,
Beti zurrut egiten sagardotegian,
Broma eta kantua xelebrequerian,
Handik ateratu arte ahal duen guzia.
2. Hunen ofizioa zapata egilea,
Lan fina badauka abilitadea,
Bainan lanerako da gogorik gabea,
Pena hartzekoa da hunen infinidatea.
3. Lana egin baino lehen kobratu lehenbizi,
Diru horiek hartu eta tabernara ihesi,
Horiek gastatu arte, zoinek etxerazi,
Bizkarra hautsitzea ez al du merezi.
4. Gosaltzeko behar ditu sei edo zazpi baso,
Zoinek orduan honi lana egin asko,
Edan korriente bainan pagatzea ahaztu,
Hola tabernaria ezin aberastu.

Frantxua FAGOAGA, "Apeztei"-ren ahotik.

XVI

Oraingo neska gaztien...

- 1- Oraingo neska gaztien zortzi pertsu berri,
Nahi tuenak ikasi erne egon bedi,
Igantetan, igantetan dire kantatuko,
Ostatu guzietan denek aditzeko.

- 2- Oraingo neska gaztien duten fantesia,
Grabata baten plazan badituzte bia,
Mirailari, mirailari diote beiratzan,
Buruko papilotak ongi detuzten.

- 3- Oraingo neska gaztiak oinetikan buru,
Ederki apaindurik ibiltzen zaizkigu,
Perleriaz, perleriaz zaizkigu garnitzen,
Ustez eta zonbeit xoro tronpaturen duten.

- 4- Oraingo neska gaztiak Bidarte alderat,
Lehiatzen zaizkigu uron edaterat,
Uron horrek, uron horrek kalte egin ez dezan,
Ederki dantzatzen dire Bidarteko plazan.

Fifin Olandeikoaren liburuxkatik.

1
 Oraingo neska gastiñen zortsi pertso berri
 Nahi tuenac ikasi erne egon beñi
 Igandetan igandetan dire cantatuco
 Ostatu guzietan denec aditzi eoa

2
 Oraingo neska gastiñe duten fantasia
 Grabata duteñ pilasan badituzte' bia
 Mirailari mirailari diote beñitzen
 Baruco papilotac ongi dituzten

3
 Oraingo neska gastiñe cinetican buru
 Ederki apainduric ibiltzen saizkigu
 Perleriaz perleriaz saizkigu garnitzen
 Noster eta sombit choro trompaturon daten

4
 Oraingo neska gastiñe bidarte alderat
 Behiatzen saizkigu uron idaterat
 Uron horec uron horec calte egin esdesan
 Ederki dautbatzen dire bidartico pilasan

XVII

Mila bederatzí ehun eta berrogeita biga

Musical score for the song 'Mila bederatzí ehun eta berrogeita biga'. The score is written in treble clef with a key signature of one sharp (F#) and a 6/8 time signature. The melody is accompanied by a bass line. The lyrics are written below the notes.

Mi- la be-re-ra-tzi ehun(ta) be-rro-gei-ta bi-ga Kan-
tuz has-te-ra no-ha har-tu-rik xe-de-a Ku-
ran-ti-an e-mai-te-ko gur-re gaz-te-ri-a Su-jet bat ba-du-
gu-la pa-re-rik ga-be-a. La, la, la, la, la, la, pa-re-rik ga-be-a.

Airea: *Dama gazte xarmant bat*

1. Mila bederatzí ehun eta berrogeita biga,
Kantuz hastera noha harturik xedea,
Kurantian emaiteko gure gazteria,
Sujet bat badugula parerik gabea.
2. Izar xarmegarri bat gazte eta propia,
Zoraturikan dauka kartier guzia,
Ezin salatuz ari da bere balentria,
Baten partez tronpatu dituela biga.
3. Izar haren bizia dut deklaratuko,
Karrikan da muxurdin baten zerbitzuko,
Presuna seriosa ainitzen gostuko,
Nik frogatu dut sobera hori sinesteko.
4. Erlijionea ere du ongi pratikatzen,
Ardura Elizan eta maiz komuniatzen,
Handik atera orduko jende enganatzen,
Debru zonbait bide du horrek promenatzen.
5. Mintzatzen ongi daki izar famatuak,
Profeta iduri du haren talentuak,
Sinetsirikan sobra promesa faltsuak,
Biga izatu gira ongi tronpatuak.

6. Enganaturik ongi bere maleziaz,
Desgaraiatu du laster bat ala bertzeaz,
Hobe bat baitzeraukan aparantziaz,
Atxikitzen zuena korrespondantziaz.
7. Konplitu berri ditu hemeretzi urte,
Sasoin ederra eta libertatea maite,
Gaixoa inor gabe ez omen baitauke,
Gu abusatu gaitu bertzea jin arte.
8. Bere maite berria zaionean etorri,
Mandatuketa doa gau oroz kantari,
Pasatzean begiraturuz gaixoaren bortari,
Heian libro ote den jin dakion segi.
9. Izar xarmegarria paregabekoak,
Iluntxetako ditu falta mandatuak,
Ixil pasa lezazke bere segretuak,
Gaixoari ez balire denak ohartuak.
10. Karrikan hori dute bat har bertze utzi,
Abertitu nahi ditut lagun eta guzi,
Kanpainar bat hartzeko karrikakoa utzi,
Nahi balinba zaizte onduan urus bizi.
11. Adios, beraz, izar parerik gabea,
Desiratzen zaitugu senar bat hobea,
Laister izan zaitela ostaler berria,
Hartaz gozatu ondoan zeruko loria.
12. Hamabi bertsu berri aire zaharrear,
Amodioak utzi penaren gainean,
Emanak izan dira Senpere Herrian,
Gazteek kantatzeko omore onean.
13. Bertsu hauen emaila ez da laboraria,
Izkiriatzen du bainan ez da notaria,
Kargua badut bainan ez hainbat haundia,
Doidoia mantenatzen dut nere burua.

XVIII

Egundaino holakorik

1. Egundaino holakorik ez ahal da nihun gertatu,
Herri guzia daukute orai eskandalizatu,
Esposatzeko mahain saindura zirelarikan hurbildu,
Apezak ere ez zakien zoin beharzen esposatu.
2. Apezak zituelarik bi andre han ikusi,
Bere baitan egin zuen batto beharko dik utzi,
Bietarik batere gabe gelditzea likek merezi,
Bainan batto esposaturen diat nahiz nik ere zerbait irabazi.
3. Mutil haren berriak neska harek jakin eta,
Ondotik segitu zaio haurra harturik lasterka,
Bihotzeko mina duk bainan nihori ezin mendeka,
Altxa zak burua goiti eta horra nun duken hire potreta.
4. Hauxe da gertakaria tontuen ernagarria,
Beti nindukan erraiten hitzela ezkondu nahia,
Utzi duk andre xaharra eta orai hartzen duk gazte berria.
.....

Olandeiko Fifin-en liburuxkatik

XIX

Andre alarguna eta...

1. Mila bederatzi ehun eta hogoita bigarrena,
Kantuen emaiteko izan dut ordena,
Konplitu nahi nuke hartu dutan pena,
Satifaturik ongi arrenkura dena (bis).
2. Kantu haien sujeta andre alarguna,
Ameriketatikan etorria huna,
Betikotz han utzi du bere espos laguna,
Orain egiten dauku gostuko fortuna (bis).
3. Bi urte lehenago toki horietarik,
Senarra joan zitzaion hau hemen utzirik,
Gaixuak izan balu fidelitaterik,
Ez zitzaion joanen zakua beterik (bis).
4. Ihiztari bat dabil maiz haren ondoan,
Batian ixilik eta bertzian klaruan,
Partalier ez balu hori azkenekuan,
Haur espero ez zuen harturen altzoan (bis).
5. Gazteriaren partez milaka goraintzi,
Alferetan baitituzu hor ibilarazi,
Gaixua ez zenuen bertzerik merezi,
Gezurrez hau zirikan ezin irabazi (bis).
6. Huntan kitatzen zaitute ikus artio,
Sobera mintzatzeak ez baitu balio,
Zure bihotzak badu ainitz amodio,
Guardia berriz tronpa hori dela medio (bis).

XX

Urki zelaiko punta

Airea: *Andre Maddalen....*

1. Urki zelaiko punta Bautista haundia,
Amets bat eskuetan pikatu berria,
Aitortzen ez banakon han bertan egia,
Nik ebatsi niola bestako ardia,
Hautsitzen ninduela buruaren erdia.

Ganizon BERGARA, "Txistu"-ren ahotik.



2000.07.16. Jeanne Daguerre Etxeverri, Ernest Etxeverri

Sarako bestetako usaia zen zikiroa jatea. Urte hartan artzain batek bat eskaini zuen, baina hara nun bere auzokoari ere bat faltatzen zaion. Elgar atxemaiten dire Larrungo mazeletan."Errak, hik ebatsi nauk ardia..."

Duela 67 urte bere aitaxiri entzuna. Bertze hamar bat bertsu badira oraino. Ez zen kolpekarik izan, Sarako bestetako zikirioa ez baitzen ebatsia.

XXI

Pepa eta Koakin

Gi- zo - na zoin tris - te den ez - kon - tza ga - be
 - tan Lo - ri - kan e - zin e - gin be - ti pen - tsa - ke -
 tan, O - he - tik nes - ka - to - a - ri, za - to hu - na Pe -
 pa He - men e - go - nen gi - ra bi - ak e - le - ke - tan.

Airea: *Eperrak badituzu...*

1. Gizona zoin triste den ezkontza gabetan,
 Lorikan ezin egin beti pentsaketan,
 Ohetik neskatoari, zato huna Pepa,
 Hemen egonen gira biak eleketan.
2. Pepak ere eman dio bere errepostua,
 Ez ahal dituzu bada zangoak hoztuak,
 Heldu naiz berehala itzaltzen dut sua,
 Ez dut galtzera utzi nahi holako kausua.
3. Pepa zure berriak jakin ditu atzo,
 Nola egona zinen hogeitau egun preso,
 Bero denean itzala batere ez da gaisto,
 Handik atera zera aza bezain fresko.
4. Hola preso egoteko zer zinuen sujeta,
 Establiatik hartu besteren paketa?
 Paketa horren hartzeko bazinuen kopeta,
 Hori deitzen baitugu ohoinen buketa.
5. Behin egin duena eginen diro berriz,
 Etsaia ari zaio bazterretik irriz,
 Hura beti kontentu zarkeria nahiz,
 Irin onaren plazan ordaintzen du zahiz.

Frantxoa FAGOAGA, "Apeztei"-ren ahotik.

XXII

Lehengo batean

Lehen - go ba - te - an e - san - go di - zut han
za - gon i - lu - na - ba - rra, Neu - re an - dre - a
pla - zan za - bi - lan, dan - tza - tzen zu - en na - ba -
rra, La - ne - ta - ra - ko go - go tti - ki - a, fan - dan -
go - la - ri su - ha - rra Ber - din ni - hau - rrek
i - ku - si ba - nu hau - tsi - ko ni - on biz - ka - rra.

Airea: *Andre Madalen...*

1. Lehengo batean esango dizut han zagon ilunabarra,
Neure andrea plazan zabilan dantzatzzen zuen nabarra,
Lanetarako gogo ttikia, fandangolari suharra,
Berdin nihaurrek ikusi banu hautsiko nion bizkarra.
2. Neure andreak josten du plantan, brodatzen ere badaki,
Kozinaria nolakoa den lan guzietan egoki,
Gatilu salda ardoarekin gorputza sano eduki,
Bere burua mantenitzen du, senarra baino hobeki.
3. Eskel burutik amildu eta beheitiraino hain zuzen,
Lehendabiziko pentsatu nuen eltze zaharren bat ote zen,
Hanka bat zeukan Bitorian eta bertzea berriz Londresen,
Berriz ere han egongo zen nihor etorri ez bazen.

4. Uda partean aritzen ginen aita semea laborantzan,
Andrea berriz ganbaratik tabernarako arrantzan,
Neure buruaz arnegatuta Euskal Herritik joan nintzan,
Horra umeak amaren faltan gaixoak nola dabilzan.

Frantxoa FAGOAGA “Apeztei”-ren ahotik. Ganizon BERGARA, «Txistu»-k ere gisa bertsuan kantatzen du.



2000.07.16. Anita Ibarra-Bereau, Auger Ibarra, Antton Irubetagoiena

Andre horientzat badugu beti zerbait erraiteko, nahiz horien beharra badugun. Gure bertsularienak dantzan nahiago omen lana baino...

XXIII

Usoa eta Amerikanoa

1. Mila bederatzia ehun eta hogoita batean,
Kantuz hasterat noa sujeten gainean,
Uso xuri pullita Senpere herrian,
Airetan dabilana joan den aspaldian.
2. Senperen sorthu eta Amotzen hazia,
Uso hortaz ederki mintzo da jendia,
Ez da arras tontoa, erne du begia,
Berak nahasia du kartiere guzia.
3. Amerikano hoitan du bere fantesia,
Uste baitu hoiekin hobeki izaitia,
Plazetarat joaiteko jaun gisa bestia,
Bainan etxian dute maiz gerla gorria.
4. Amerikano zahar, oi tripa handia,
Aise enganatu duk inozent trixtia,
Lehen ere ibili duk zonbeit komedia,
Gizon zahar batentzat ez duk balentria.
5. Amerikano hori bihar da partitzen,
Eta uso gaixoa tristerik gelditzen,
Gaixoak holakorik ez zuen pentsatzen,
Haurrak ere erorka xutik du ikasten.
6. Orai adrezatzen naiz haren aitameri,
Kasu egin bezate uso gaztiari,
Nik uzten diot orai nahi duenari,
Huntan erraiten diot adios Mariri.

Olandeiko Fifin-en eskutik

1
 Abilla bederatzi ehun da hogoitia batean
 Kantu frasterat noa supeten gainean
 Usu churi pullita sempre herrian
 Airetan dabilana Joan den aspaldian

2
 Semperen sortueta amotzen hasia
 Usu frortaz ederki mintza da zendia
 Ez da arros tontoa erre du begia
 Berak nahazia du Kartiere guzira

3
 Amerikano froitan du boe fantesia
 Beste baita froickin frobeki izantia
 Plaz etarat joateko jaun gisa bestia
 Baiman etxian dute mabiz gerla gonua

4
 Amerikano zahar oi trijra handia
 Abise engaratu duk inozent triektia
 Behun ere ibili duk zombat Komedia
 Gison zahar batentzaz ez duk balentria

5
 Amerikano hori bihar da partitzen
 Epa uso gaichoa trusterik gelditzen
 Gaichoak frobakorik ez guen prestatzen
 Hawrak ere erorka chutik du ikasten

6
 Orai adrezatzen naiz heren ait ameri
 Kasu egin bezste uso gaptiari
 Pik us ten diot orai nahi duenari
 Ahuntan erraiten diot adios mariari

XXIV

Ezkontzeko hasita

Ez-kon-tze-ko ha-si-ta hau da des-gra-zi-a, hau
da des-gra-zi-a, mu-til fal-tsu-a-re-
kin tra-ta-tzen ha-si-a. Ni fi-da-nin-tzen
bai-no ha-ren ma-le-zi-a, ho-rre-ga-ti-kan
na-go baz-te-rre-ra u-tzi-a pu-bli-ka-
tze-ra no-a a-fe-ra gu-zi-a.

Airea: *Saratarra naizela*

1. Ezkontzeko hasita,
Hau da desgrazia (bis).
Muthil faltsuarekin tratatzen hasia,
Ni fida nintzen baino
Haren malezia,
Horrengatikan nago
Bazterrera utzia,
Publikatzera noa
Afera guzia.
2. Mutil kuriosoa,
Alto ta gizena (bis).
Ikustera jiten zautan
Ahal zuen maizena,
Ni ere haren etxean
Bietan izana,
Geroztik urrikitan
Egoiten naizena,
Ez bainuen uste zela
Holako gizona.

3. Errematismoarekin
Eri naiz egotu (bis).
Orduan ikustera
Ez zautan agertu,
Erietara goizik
Behar zuela sartu,
Sinesten nihozkan eta
Aise nau tronpatu.
Nere bihotz gaixoa
Daut gogor kolpatu.

4. Muntra eta ereztuna,
Linga eta baxera,
Arno eta azukre,
Jaunari eskerra,
Gostairik genituen
Bilduak etxera.
...

Senperen Gaxinabordan sortua Ziburun bizi den J.B. TAPIA-ren ahotik. 12 bertsu zituen kantu honek. J.B. TAPIAk buruz eta gogo onez eskaini dizkigu lau hauek.



2000.07.16. Louis Goienetxe, Fifiñ Onxalo, Mixel Billon, Andoni Iturriotz, Bizkarrez, Beñat Harizgain, Dominique Larretxea

XXV

Ekituen kantuak

1. Publikatzerat noa kantu hauk ekito jende hoiinak,
Orai danokoan gure artian pasatu izan direnak,
Alferrak dira oro lapurrak, eskezaliak gehienak,
Okasio eta eskandalioa faltatzen ez zaiotenak.
2. Ekito jende hoiien bizitza guziz dago xelebria,
Honrados dira haurrian eta edo bertzenaz pobria,
Nekatu gabe bizitzekuak dira hoiien gustunbriak,
Ezen arratsian usatzen dira gizonak eta andriak.
3. Emakumien kondiziuak eskerrak diotenian,
Etxeko andria karitate on bat jangoikuaren izenian,
Konplimenduak luziak eta esker motzak azkenian,
Gauza guziak berenak tuzte inor bistan ez denian.
4. Etxe leiorsat ipoal teileri leiora dagon tokira,
Ilunerako guziz geienian erretiratzen baitira,
Entenimenduz egotua naiz ni hoieri begira,
Haserretuta onic ez tute porroskatzen ez badira.
5. Beren burua asto xakur dabilta joan etorrian,
Emakumiak erdi bilutsac kasikan larru gorrian,
Gizonaz beritze mozteko aitzaki haztur zar batzu gerrian,
Seinale on bat uzten baitute pasatzen diren tokian.
6. Lizu horietako oihalak eta oilo ebasten atsoak,
Gure artean lapurkerian dabilta mutil gaixtoak,
Gizonak berriz ere mendi horietako behorrak eta astoak,
Gauza errexik senti badute arrautzan pasa eskuak.
7. Haragi ustel jateko ere dira pare gabekoak,
Gehienaz ere zakurrak dira horiek bezalakoak,
Izanagatik hoge egunez lurpean egontakoak,
Ikus aluak jaten dituzte igelak eta apoak.

Olandeiko Fifin-en eskutik

Lituen cantuar

Publicatsérat noa Kantu haue ikito fende. ^{horin}
 Orai danokoan gure artian pasatu ism dirinae
 Alforae dira oro lapurac eskalac geitinae
 Okasio eia eskandeliac faltaben etsaiotenae

2^{en}

Ikito fendi oihen bisita gusis dago selébia-
 honados dira haurian eia edo berbenas probia
 Okatur gabe bisitacac dira boien gustumbria
 Esen arratsian ausasen daa gisonac eta andria

3^{en}

Emakumien condisiua eskorat diatzenian
 Etcheico-andria Karitate on bat pangoi ^{kur}
 isenia

Complimendua lusia eia ethe motrac asken
 gausa gusiac berenac tuste ignor. bistan estan

1^{en}

Etche liorsat ipual teileri liora dagon tokira
 Iluniraco gusis geimian eretiraben baitira
 Kontenimendus egotua nais ni hoikuri begira
 Etsaretuta omie es tute porroskatsen es badira

5^{en}

Beren bournu astota chakur dabilla. guan etoria
 Emakumiac erdi bilussac Kasikan larnu gorrian
 Gisonac beris e mostek o aitsaki hastur charbasu
 Seimale on bat ustén baitute paraben dire ^{fohin} gorria

XXVI

Ene semiak, ez zaiztela ostatueta abusa

1. Ene semiak, ez zaiztela ostatueta abusa,
Goiz erretiratzen den gizona maiz izanen duk urusa.
Gizonaren zoragarri duk mahats arno filusa...
Zonbeit aldiz prestatu zioiat mularik gabe karrosa!
2. Menaiatuz on egiten dik gorputzian edariak,
Soberetan pasatuz geroz akabo gure fediak.
Mediku haundi batek bezala, nik erranen dut egia,
Gazte delarik inultzen dik gizona deboxkeriak.
3. Nahi bezenbat menaiatuz deboxkeria hastigu.
Ostatuan guri orenak laster juaiten zaizkigu.
Gure Jinkuak ez daiku emaiten merezi ainbat gaztigu,
Gizon deboxak abusatzeko tiraka guti aski du.
4. Arnua edan pipa hartu gero burua xoratu,
Familiar behar sosak ostatuan xahutu!
Urre denboran hola eginak orai sakelan bazintu,
Jende artean bazinuke duzun adin bat kreditu.

Ganizon BERGARA "Txistu"-ren ahotik

"Ene semiak etzaiztela ostatueta abusa" diote aitag semeeri bi pertsutan. Semek erraiten diote beren ikusteko manera, bertze bi bertsutan.

XXVII

Neskatxa gazte

1. Neskatxa gazte inorant batek
Bere berriak erran tu,
 Enpatxo dela,
 Ez dakiela
Zonbat dukeian denbora,
Haurraren aita joan zaio eta
Ilhun duela bihotza.
2. Neskatxa gazte inoranta zu,
Otoi, kuraia hartazazu,
Xoriak ere bere kaiolan,
 Bortz-sei umeak,
Hazten tu bortz-sei umeak,
Hazten tu eta
Zuk ere batto egizu.

Pello HALSOUETen eskutik

XXVIII

Kantore berri xarmant batzuek

1. Kantore berri xarmant batzuek, hasterat noha kantatzen,
Inorent denik balin bada, orok jakin dezaten,
Izar eder bat badakizue guziek badela Luzairen,
Eztitasunez bethia da eta guziak ditu tronpatzen,
Gaixoa hasi da tristatzen.
2. Barber gazte bat jiten omen da, Españako partetik,
Arteza horren kontsolatzerat, erremedioz betherik,
Erremedioak egin tu bainan gaixua utzi du trixterik,
Eta penaz betherik.

Sarako Joseph SALDIES "Joset Fatura"-k Maite BARNETXeri emana

XXIX

Hogesimalau urtetan

Erdi nuzu hogesimalau urtetan,
Hemezortzi seme, sei alabetan,
Nere senarrak ez dik parterik hoietan orotan,
Bakar hura mulinekin errotan, gaitzeru bat artotan.

1. Bi atso zahar zahar ehun eta bi urtetan,
Batek nahi zuen josten ikasi eta bertzeak ezkondu.
Alaket, alaket, alaket eta xunpaire
Korrespondentzia Mikeletsuak, kexu Maria, bien Koxe.
2. Hik hobe dun, Maria, mutxurdin gelditzea,
Plazaz-plazaz hor ibiltzeko atxikak libertatea.
Alaket, alaket, alaket...
3. Nere andre mutur beltz, ezpain haundi, ortzik ez,
Haragi gordina maite du baina egosirikan batere.
Alaket, alaket, alaket...

Antton IRUBETAGOIENAREN ahotik

XXX

Mila bederatzihun eta hogoita zazpian

1. Mila bederatzi ehun eta hogoi ta zazpian,
Tatxa bat ikusi dut gure iduzkian,
Urruñakoz diote Lapurdi guzian,
Amodio fidela zangoen azpian.
2. Kanta hauen sujeta mutiko sabanta,
Kanpaina ederreko premu dixtiranta,
Urruñako bestetan huni zaio planta,
Begien aintzinean lore bat xarmanta.
3. Lore hau berehala zuen eskuratu,
Gazterik landarea nahiz seguratu,
Bainan amets guzia ez du bururatu,
Manak joan eta gero ezkontza urratu.
4. Joan den igandean elizatik manak,
Promesa finkatu du herriko artzainak,
Xokoleta hartzean neskatxa andanak,
Ohorezko presentak gusturat emanak.
5. Ondoko larunbatean mandatu kruela,
Mutiko gazte hunek pausu bat gibela,
Koinataz abisatu du bere grabela,
Bertze batentzat libro utzitzen zuela.
6. Gauza bat jakin gabe ez litake konda,
Jaunak odol hotzear hau mandatu mota,
Ixuri bide dute zonbait nigar xorta,
Horra lore eder hau ausinetat bota.
7. Desiratzen zutela jaztea urus,
Gazteriaren poza besta bati buruz,
Negu trixtea joan du aspeitua baruz,
Suerterik ez zutela jaunen mirakuluz.
8. Oi gure oilo eta oilasko ederrak,
Arrain, erreki eta haragien xerrak,
Prestatuak zituzten ezteia superrak,
Pentsatzen jarri eta zer amets alferrak.

9. Gonbidatuak zituzten gazte lagun autuak,
Oi zer kantu eta dantza zalapartak,
Ekarriak zituzten espainol xinpartak,
Besta edertzen dute horien zirti zartak.

10. Nork behar ote du gaur bokata xuritu?
Premu guztiak erne guztiak xutitu,
Lore arraro huni ondotik segitu,
Hau berehala presta presentak baditu.

11. Lore xarmegarri hau pasako ihizi,
Senperen sortu eta Kanadan da hazi,
Orai Azkainen dugu lorioski bizi,
Aurten fama haundirik eztu irabazi.

12. Nere iduriko hola dira berex,
Ez zutelako elgar tronpatzea errex,
Joan den arrats batez egin nuen amets,
Samurtuak zirela Gaxina eta Manex.

13. Lore baten ordaina bailitzake eros,
Tratulari berri hauk ez zauzkigu arrotz,
Denbora galdu gabe lotu dira zorrotz,
Atalatuak zirela biharamunekotz.

14. Ihiziaren kanta maite dut goratik,
Primadera florian seinale da hortik,
Joan den egun batez entzun nuen leihotik,
Kukuaren errepika Oletu xokotik.

15. Amodiozko penak fruituak du gordin,
Kalte egin lezoke edozoini berdin,
Ez zaiztela ba egon donado mutxurdin,
Ezkon minekin bada hameka Lapurdin.

URBISTONDO Sara Ihiteikoek emanak

XXXI

Arotz abil bat

1. Arotz abil bat bada plazan Bardoztarra,
Ihizin ibiltzeko zakur bat beharra,
Adinez ez delarik oraino zaharra,
Erbi baten biltzeko da partikularra.
2. Mintzatu izan dute jaun ihiztaria,
Jan nahi izan zutela haren erbia,
Aseditu eginik saltsa bat haundia,
Auzotik ebatsi gatu bat eria.
3. Toki ederrean da Zikite karrika,
Ihiztariak ere han bere fabrika,
Gatua han zabilan noizean behinka,
Bertan arrapatu du mailu ukaldika.
4. Hil eta ezarri du dilindan krakotik,
Odola zariola belarri zilotik,
Bai eta ere larrutu bortak zerraturik,
Nihun ez da holako gatu borregorik.
5. Bazen Frantses, Espainol, Italiano,
Azken hunek baitzuen tiratu burua,
Erranez kurritua zuela mundua,
Saltsan atxeman gabe halako gustua.
6. Gatuaren pisua hameka libera,
Laurden bat gehiago ongi pisatzera,
Bortz lagunek jateko bazuten sobera,
Getarioa dena emanik barnera.

Petti IRIGOIN hazpandarrra. Airea: Paxkal MENDIBOURE

XXXII

Kristau bekatorea azken orenean

1. Kristau bekatorea azken orenean,
Xangrinez beztiturik dago bere ogean,
Orai sartu behar du zeruko lorian,
Haren begira daude infernu gorrian.
2. Denbora baldin banu konfesa nindaiteke,
Ministro baten bila joan zintezkete,
Eta nitaz etsenplu ikus zuek ere,
Bekatuan bizitzeak zer daukan ondoren.

Ganizon BERGARA, "Txistu"-ren ahotik.



2000.07.16. Jan Battit Tapia, Jan Pier Lazkano, Andere Minaberri

XXXIII

Hemeretzi mende ta erdi

He-me-re-tzi men-de ta er-di du ja-da-nik Je-su Kris-to lu-
 re-tik ze-ru-rat jo-a-nik Ber-tsu be-rri-ak aur-ten kan-
 ta-tzen di-tut nik Eus-kal He-rri mai-te-ak go-go-rat e-ma-nik.

Airea: *Kattalin ttuku...ttuku*

1. Hemeretzi mende ta erdi du jadanik,
 Jesu Kristo lurretik, zerurat joanik,
 Bertsu berriak aurten, kantatzen ditut nik,
 Euskal Herri maiteak, gogorat emanik.
2. Aspaldian gogoan, bainuen desira,
 Larrun mendi gainean, aurten izan gira,
 Xoraturikan egon handikan begira,
 Euskal Herrian toki ederrak baitira.
3. Ageri da Nabarra eta Gipuzkoa,
 Handik landa Lapurdi paregabekoa,
 Gero Baxenabarre eta Xiberoa,
 Urrunak gordetzen du gaineratikoa.
4. Itsasoan xalupak dabilta arraintzan,
 Ainitz gizon lurrean ari laborantzan,
 Mendietan ere gau egun artzaintzan,
 Horra Euskal Herrian zer gisaz gabiltzan.
5. Grazia eske nago Ama Birjinari,
 Jar zaite zerutikan oren gidari,
 Emaguzu bakea mundu guziari,
 Zabal zazu fedea Euskal Herriari.
6. Bertsu hauk eman ditut Lapurdi maitian,
 Larrun mendi gainian den hotelño batian,
 Berriz etorriko naiz lagunen artian,
 Jainkoak plazer badu heldu den urtian.

*Jan Pier LAZKAN*Oren ahotik

XXXIV

Mixel Larralderen hilketa

1. Othoi egin zazue, zertaz diren kasu,
Gauzak diren bezala, nahi ditut aipatu,
Artzain bat bere bordan, baitute garbitu,
Etsaiaren indarra, han da baliatu.
2. Mixel zuen izena, deithura Larralde,
Bakarrik bizi zena, lagunikan gabe,
Gauaz eta egunaz, beti larrez larre,
Jan edan onik gabe zabilan debalde.
3. Gau hartan auzoan zen gaztain erre jaten,
Trixteak holakorik, ez zuen pentsatzen,
Bere ustez deskantsuan arthalderat gan zen,
Kriminelak etxean harmaturik zauden.
4. Zango puntetan zaizko etorri biphilik,
Aizkora eskuetan ixil gibeletik,
Hiru kolpez segidan buru arraidurik,
Han bertan utzi dute bizia kendurik.
5. Hiltzea ez zen aski, nahi zuten erre,
Lastoz eta petrolez entseatu dire,
Ez zuten utzi nahi trazarikan ere,
Afera ongi zuten baliatu balire.
6. Justizia izan da jina Baionatik,
Jandarmeria eta jaun mera Herritik.
Gibelerat itzuli bihotza trixterik,
Ez baitute atzeman nehor hiltzailerik.
7. Senperen gertatzeko, oi krima trixtea,
Sortuz geroz zor dugu, guziek hiltzea,
Bainan ez zauku aizu odol ixurtzea,
Horrek ekhartzen baitu denentzat kaltea.

XXXV

Beholako hilketa

He - ri - o - tza gau - za i - lu - na ha - ri be - ha gau -
 de - la - rik, a - re bel - tza - go us - te ga - be - an
 gu - taz ja - be - tzen de - la - rik. Nun - di - kan zi - nez
 bai - li - te - ke - la he - rri - an as - ki a - be - rik, o - dol ho -
 tze - an e - za - gun ba - ten hil - tze - ko ti - roz e - rre - rik.

Airea: *Goizian goizik jeiki ninduzun*

1. Heriotza gauza iluna hari beha gaudelarik,
 Are beltzago uste gabean gutaz jabetzen delarik.
 Nundikan zinez bailitekela herrian aski aberik,
 Odol hotzean ezagun baten hiltzeko tiroz errerik.
2. Ezin asmatu gertakaria horra nun dugun ikusi,
 Jainko jaunaren lege zuzena euskaldun batek du hautsi.
 Behola hortan ahalge gaitz baita behingotzat jautsi.
 Urrungo dela hiltzale tzarra, oi nahi nuke sinetsi.
3. Senperetik Zuraideko bidean duzu Behola,
 Guarda andre baten bihotza urraturik han dagola,
 Gauaz senarra joana zitzaion zainetan azkar odola,
 Argi hastean ekarri dute azken xorta dariola.
4. Ama batekin urrilkatzeko huna bi haur negarretan,
 Lau urtez aita ibilia zen gerla izigarrietan,
 Lau urtez bainan ez zen gelditu etsaien aztaparretan,
 Herritar baten tiro eroak aitaz gabetu betbetan.

5. Gauak ardura otsailean hotz aurten negua maiz ari,
Merxikak lore andanak ere aintzinka primaderari,
Gizon bat beltzik, oihanez oihan, laster doa ihesari,
Ilgande goizak izarño batek begi bat zuen ageri.
6. Mugetan gaindi dabiltzaneri oraino beste lau lerro.
Ez ditzen izan Beholan guarda hil duena bezain ero.
Lurreko bizi hunen ondotik bizi betikoa gero,
Gizonak isil egonik ere Jainkoak badazki oro.

Jean MOULIER "Otsobi"rena. Pierrot BORDA-ren ahotik (3. eta 5.). Xabier ITZAINA-k, Itsasuarrak osatua (Hortense ARRATE, Itsasu-fagolako anderearen kantu bilduma baliatuz).



2000.07.16. Jakes Casaubon, Teresa Ibarra, Mayi Mendiboure

XXXVI

Zortzi eta lau hamabi

- 1- Zortzi eta lau hamabi, abenduan da eguberri,
Maitia gatik pasa netzazke, pasa zonbeit oren erdi,
Orenak ere pasa netzazke, balin banitze ongi etorri.
- 2- Nere maitearen etxeokak, samur dirare jarriak,
Zeren eta jakin dituzten nere goxoko berriak,
Egin ditzazte bere aferrak, nik eginen ditut neureak.
- 3- Ene maitea zer duzu, zerk hola xangrinatzen zaitu,
Ni ere zure ikustera, ardura jiten nitzautzu,
Amodioaz ez badaiteke, bortxaz eginen gaituzu.

Fifin Olandeikoaren liburuxkatik.

XXXVII

Egun oroz

1. Egun oroz goizetan, arratsetan,
Beti nagozu pena doloretan,
Ezin dezaket jan ez eta ere edan,
Ez dakit zer dudan, gaitz handi bat da ni baitan,
Atakatzen nau bet betan,
Ni ez naiteke bizi gisa honetan.
2. Antxu gazte bilo hori ederra,
Sar zaitte, sar korralean barnara,
Artaldian bada, oi zure beharra,
Turna zaitte, turna zure sortu lekura,
Desiratzen dut nik hura
Zure ondoan ibili naiz ni ardura.
3. Artzain ona badautzut ene jauna,
Otoi zato, otoi ene gana,
Errebelatu denak derautzua pena,
Ez izan dudarik oi antxu bilo urdina,
Sorturen dela ordaina,
Etzaitzela horrela xangrina.

Frantxua FAGOAGA-k «Apeztei» eskainiak.

XXXVIII

Gazte nintzelarik

Airea: *Izan naiz Barkoxen.*

- 1- Gazte nintzelarik hemezortzi urtetan,
Zorigaitz dorpea zu maitaturikan,
Oren on bat ez dut orduz geroztikan,
Nigarez urtua lo iteko plazan,
Malurusagorik ez litaik e izan,
- 2- Etsenplu bakarra gazte direneri,
Ez dela fidatzeko amodioari,
Gazte direlarik libro egin irri,
Ez sobera maita posible ez denari,
Hori dela medio malurus bainaiz ni.
- 3- Ez banitz beldurrian Jainko Jaunarenian,
Bizia gal niro gaur oren berian,
Eta zonbat izar bi hitze hauk gainian,
Pen eta xangrina ene bihotzian,
Nahi ninduzun sartu bizirik lurpian.
- 4- Jiten zautanian azken despegira,
Gorputza lurpera arima zerurat,
Joanen naiz bientzat lekuaren hartzera,
Gozatu ez denean munduan plazera,
Jainkoari ez zaio deusikan sobera.

1^{er} C
 Gaste mintze larik hemesorbi urtetan
 sori gaitz dorpea su matatuñkan
 Oren on bat es dut ordus gerostican
 eligares hurtua lo iteco plasan
 malurusa gorie estitaké isan

2
 Exemplu bakara gaste direneri
 Es dela fidatseco amodioari
 Gastei direlaric libro egun irri
 Es sobira mata posible es denari
 hori dela medio malurus bainaisa

3
 Es banitz beldurion gainco farenaren
 byzia gal niro gaur oren berian

4
 Epa tombat bat izar bi fute hanc gainian
 peneta chan grina ene bitotzian
 Bati nindusun sarlu bisic lurpian

4
 Yiten santanion asken despregra
 Gorputza lurpera arima serurat
 anen nais bientsat lecuaren hartzera
 gosatu esdenian munduan plaserá
 Jainco are estaió deusikion sobera

XXXIX

Sujet eder bat

1. Sujet eder bat deklaritzen dut gaztek etsenplu hartzeko,
Amodioa zoin den lanjeros gazterik horri lotzeko,
Izar eder bat hautatu nuen ene besoetan hartzeko,
Behin bihotzean sartu zaut eta nekez da ateratuko.
2. Amodio kartsu berria gaztien zoragarria,
Hamalau urte konplitu gabe emana nuen begia,
Geroztik hunat gomendatzen dut zeruko Jainko haundia,
Nik haren baitan ezarria dut nere esperantza guzia.
3. Amodiorik ez duenak penak zer diren ez daki,
Eta gaixoa ni aspaldian atakatzen nau bortizki,
Kontsolatzeko ene maitia ardura nahi nik ikusi,
Hura ikusi gabe munduan ez naiteke luzaz bizi.
4. Arrazoin duzu, ene maitia, ez gira luzaz biziko,
Behar baino ainitz urte lehenago tonban baigira sartuko,
Behin maitatu zaitut eta ez zaitut hastiatuko,
Ene bihotzean sartua zira eternitate guziko.
5. Dударик gabe aitamen ganik hori nuen merezi,
Zeren zaitudan guzietarik espos laguntzat berexi,
Desterraturik igortzen naute zure menetik ihesi,
Zure ganako amodioa nahiz arras galarazi.
6. Ene ganako amodioa ez ahal duzu galduko,
Zuk utziz geroz, ene maitia, laster naiz tonban sartuko,
Emeki emeki ez ote dugu gauza hau gaudituko,
Menturaz zure aitamak dira gutaz urrikalduko.
7. Despegidarik ez dio eman, maitia, zure ahalgez,
Maite nauzula ez dut dudatzen zure aitamen partez,
Dударик gabe etziren kontent gure arteko manerez,
Xangrinen pean bizitzeko gu sortuak gira araeuz.
8. Partitze huntan abiatzen zait begietarik nigarra,
Maite nauzula ez dut dudatzen, oi ene maite leihala,
Apentziaz etzinen zu enekin bizi beharra,
Jainko maitiak eman dezala zuk behar duzun senarra.

9. Ez ahal zaude despeitzera hoinbertze urteren buruan,
Batek bertzeari bere manerak deklaratzeko orduan,
Sinets nezazu fede ukaturik ez dela sartzen zeruan,
Nola dezaket hauta zutaz bertzerik munduan.
10. Hoinbertze urtez bizi izan gira biak elgarren agrados,
Bai eta ere laztuz trixtatu aitama jakinez geroz,
Amodioa hain da haundia diruz ez ditake eros,
Hori dela medio gira biak biziko maluros.
11. Fidelitate haundian eta birjinitate garbian,
Bertute hoitan begiratu gare gazte denbora guzian,
Okasionetik beti begiratzuz ahal bezainbat munduan,
Eternitatean lorios naiz hil eta parabisuan.

Fifinen liburuxkatik



2000.07.16. Bergara Ganizon "Txistu"

*Lehen hiru koplak ezagunak dira.
Bertze hamekak Fifin Olandeiko liburuxkatik dire.*

XL

Nahi ditut kantatu zonbeit bertsu berri

1. Nahi ditut kantatu zonbeit bertsu berri,
Ene bihotz trixtia zeren baita eri,
Pena xangrinek gazterik naute ehortzi,
Naizelakoan fidatu amodioari,
Bai eta ere sobera xarmegarrieri.
2. Lili bat maite nuen zonbeit urthe hautan,
Ederragorik ez zen ene begietan,
Harekin zonbeit aldiz nindagolarikan,
Bethi irri pullit bat haren ezpainetan,
Iduritzen zitzautan nintzela zeruetan.
3. Lurreko zorionak luzamenik ez du,
Gerra batbetan hor nintzen arribatu,
Lagun guziekin nintzenian partitu,
Maitea nigarretan nuen besarkatu,
Bien pena handia ginenian kitatu.
4. Gerla izigarria zenean akabatu,
Frantziatikan urrun nintzen suertatu,
Hiru urthe osoak han ditut pasatu,
Maiteak arte hortan ninduen tronpatu,
Holakorikan ez nuen sekulan asmatu.
5. Goiz batez nintzenian arribatu etxean,
Ene alegantzia, oi zoin handi zen,
Bainan ene bihotza laster ilhundu zen,
Ene maite pullita ikusi bainuen,
Haur ttipi ttipi bati bularra emaiten.
6. Pentsatzea errex da zoin bortitz izan zen,
Ene bihotzarentzat horren konprenitzen,
Izar paregabea ez nuen pentsatzen,
Holako afruntu bat nuela izanen,
Zure amodioan sinesten bainuen.

21.
 Nafu ditut Kantatu zombait pertzu berret
 Ene bihotz trichita zesen baha iri
 Pena changrinek gazterik nautte ehortzi
 Naizelakoan fidatu amodioari
 Bai eta eresobra charmegarierri

2
 Gili bat maite nuen zombait urthe hautu
 Uderagorik etzen ene begietan
 Harerik zombait aldi nindagolarikan
 Bethi hirri pullit bostaren izpainen
 Iduritzen zizantun nintzela zeruetan

3
 Leurreko zouronak ligamenuk ez du
 Gerla bat betan horra nungzen arribatu
 Lagun guzirikin nintzenian partotea
 Abaita nigaritan nuen besarkatu
 Bien pena handia ginienian Kitatu

4
 Gerla izugaria zenean akabatu
 Frantziatik urrun nintzen suertatu
 Hiru urthe osoak han ditut pasatu
 Abaitak arte ortan ninduen tronpatu
 Holakorikan es nuen sekulan osmatu

5
 Gai batz nintzenian arribatu etxean
 Ene gleyrintzia ozen handi zen
 Baiman ene bihotz laster ilhundu zen
 Ene maite pullita ikusi baimen
 Haur tipu tipu bati bularra emaiten

7. Geroztik hemen nago ardura trixterik,
Izar xoragarria sobera maitaturik,
Hura dela medio nigarrez urturik,
Gure Jainko handiak zerurat deiturik,
Utziren dut mundu hau agian lasterrik.

8. Zortzigarren bertsu hau gazte laguneri,
Kontseilu bat dautzuet emaiten zueri,
Lili guziak dire mintzatzen xarmanki,
Bainan ez otoi fida hitz eder horieri,
Hori dela medio malurus bainaiz ni.



2000.07.16. Antton Irubetagoiena, Jako Irubetagoiena, bere andrearekin

XLI

Izan niz balenkonian

1. Kantoreñoak berririk,
Sujetak berak emanik,
Amodioaz gaixoa fidaturik,
Ezarri bainau biziz gabeturik.
2. Izan niz balenkonian,
Orai niz plazerren erdian,
Erranen dauzut urrengo aldian,
Zer sendimendu dudan bihotzean.
3. Maitea, konsola nezazu,
Bihotza ebatsi dautazu,
Ni zure minez eritu nukezu,
Senda nitazke zuk plazer bazinu.
4. Ene maiteak hitz batez,
Ihardesten daut bertutez,
Nik zurekilan ezkontzea ustez,
Amodiotan egon naiz bortz urtez.
5. Ene bihotza zurea da,
Zurea norena ote da?
Atxik zadazu fidelitatea,
Gero izanen naiz betiko zurea.
6. Etxeko alaba doluan,
Deklaratzen da damuan,
Baldin ez badu izaiten premua,
Galdu beharko duela burua.
7. Sekulan orhoitzeko eguna,
Baionarat joan ginena,
Abendua zen ez urrun azkena,
Hogoi ta zortzia eta astelehena.

SENPEREn kantu ezaguna

XLII

Lainopetik zaiku izar on bat atera

1. Lainopetik zaiku izar on bat atera,
Inoranteri argi egiterat,
Bi amodio jarriak batera,
 Urrun, aparte da,
Ez da harritzeko bixuzte urthe da.

2. Inoranteak ditut argitu nahi,
Errepikatuz zonbeit kantu berri,
Zoin alde hartu ezin atrebi,
 Bat aski, bi segī
Bainan jelosia hain da tronpagarri.

3. Gutienian laur bortz urthe baditu,
Maite bateri diola segitu,
Odol hotzian handik partitu,
 Sesitu, etsitu,
Huna jelosia nun den nagusitu.

4. Kantu haien sujeta dugu,
Urrunan egoitzaz etxe famatua,
Hemen diote egin tratua,
 Heldu da fruitua,
Gaur erran ditake, ez da sekretua.

5. Igande egun bat, hain zen seinalagarria,
Haritu baita Urruñako Herria,
Hau zer emanen atera aldia,
 Lehen eta azken bat bia,
Goxoago da etxeko kafia.

6. Hameka pena bizi garen lurean,
Guzientzat heldu ororen gainera,
Amodioa gogotik drole da,
 Jar beha, nor bera,
Etxeko lorea miletan hobe da.

1
 Ignorantia saiku isar on bat atera
 Ignorantia argi igiterat
 Bi amodio jarriak batera
 Harriena parteda
 Es da haritzeco biguste urthe da

2
 Ignorantia ditut argitu nahi
 Errepikatuo sonbeit Kantu berri
 Jain alde hartu esin atrebi
 Bat aski bi segi
 Baiman jelozia hain da trompagarri

3
 Gutienian laur borth urthe baditu
 Abate bateri diola segitu
 Odol hotzian handik partutu
 Hezitu etzitu
 Huma jelozia mun den nahuzitu.

4
 Kantu akuzien sujeta dugusaran sortua
 Uruguan egoitaz etche famatua
 Hemen diote egin tratua
 Heldu da fruitua
 Gaur erran ditake esda sekretua

5
 Igande egun bat hainzen seinalagarria
 Haritu baita urugonako herria
 Hau ser manen atera aldia
 Lehen eta asken bat bia

7. Aingeru on bat bada beti zeruan,
Gure zaintzeko behar den orduan,
Maite bat kita bide,
 Bortz urte buruan,
Ez da ez hortakotz haunditu graduan.

8. Urruneko eltzea kargatua da urrez,
Hurbildu eta gehienez lurrez,
Zonbeit gau egun kontseilu galdez,
 Nigarrez, beldurrez,
Sentimendu duena laguneri gordez.

9. Nork berak ez du aski manatzen,
Auzoak ere dire okupatzen,
Jende beharra dute laguntzen,
 Famatzen, xarmatzen,
Bato arrarua da telefonatzen.

10. Oi amodioaren lana izugarria,
Negar uretan eman,
Bortz urte pasa zure begira,
 Nor maita, nun fida,
Kasu pena sartu bihotzean ez dira.

11. Hemeretzi ehun hogeita hamabiko,
Agertu zauku historio frango,
Nik kontseilu bat badut saltzeko,
 Etxeko, kanpoko,
Maite ez denarekin ez ezkontzeko.

Benane ZAMORAREN ahotik

XLIII

Aspaldiko denboretan, gauaz eta beti

1. Aspaldiko denboretan gauaz eta beti,
Ihizin ibiltzen nintzen uso pollit bati,
Azkenean atxeman dut; oi, bainan trixteki,
Lumarikan ederrena baitzaio erori.
2. Supazterrean zoin den eder suburdina letoinez,
Xarmegarria erradazu maite nuzun ala ez,
Baietz ere ezin erran, etxekoen beldurrez,
Ezetz are gutiago, zure begien ahalgez.
3. Maiatzean zoin den eder leihotik kanpora,
Zeren orduan baita lilien denbora,
Bati begiratzen diot maiz eta ardura,
Gortiaren egitea ez naiteke mentura.
4. Gortiaren egiteko ez izan herabe,
Baldin amodiorik balin bauzu batere,
Izanak eta galeak jendetan badire,
Ene bihotzak ez du zu bertzerik maite.

Frantxua FAGOAGA «Apeztei»-ren ahotik.

XLIV

Oi eper zango gorri

1. Oi eper zango gorri airean joailea propia,
Ez duzuia bada pena neuri hola ikustea,
Otoi, otoi, har nezazu utzirikan bertzea.
2. Nonnahi joan nadin neure bihotza zurekin,
Plazerrikan ez dut hartzen neure lagun gazteekin,
Nun ez zaitudan zu ikusten zure begi ederrekin.

Frantxua FAGOAGA, "Apeztei"-ren ahotik.

XLV

Eri naiz bihotzetik

The image shows a musical score for the song 'Eri naiz bihotzetik'. It consists of four staves of music in a single system. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (B-flat), and a 6/8 time signature. The melody is written in a simple, folk-like style. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables that span across multiple notes. The lyrics are: 'E - ri naiz bi - ho - tze - tik zon - bait ur - te hun - tan Gau - az e - ta e - gu - naz e - rre - be - rri - e - tan E - rre - me - di - o - ri - kan ez bo - ti - ka - ri - kan Ne - ga - rrez ur - tze(r)a no - a pe - na xan - gri - ne - tan.'

Airea: *Xarmegarria zira...*

1. Eri naiz bihotzetik zonbait urte huntan,
Gauaz eta egunaz erreberrietan,
Erremediorikan ez botikarikan,
Negarrez urtzera noa pena xangrinetan.
2. Partitzen baldin bazira maitea mundutik,
Ez zare aterako neure bihotzetik,
Laster hilen naizela ez daukat dudarik,
Bihotza urtzen ari zaut zure xangrinekin.
3. Gauza izigarria bihotzeko mina,
Eta partikularzki amodio fina,
Gorputza ia galdua lanjerean arima,
Urrikal zaitetz nitaz, oi ama birjina.
4. Kantu hauk eman ditut neure buruari,
Zeren baitu bihotzean ainitz sofrikari,
Adio sekulako maite nuen hari,
Gorputza lurrera eta arima jainkoari.

Frantxua FAGOAGA «Apezteji»-ren ahotik.

BIDAXUN zenak emanak.

Pettan ELORGArek ama zenari eskainiak.

XLVI

Iragan egun batez

1. Iragan egun batez, ametsetan nintzen,
Ene maitearekin ari nintzen lore biltzen,
Nik biltzen nituen eta harek atxikitzen,
Pentsatzekoa enetzat zer atsegina zen.
2. Errebenitu nitzan bai ametsetarik,
Lili eder guziak galduak eskutik,
Nere maitea ere urrundu bixtatik,
Orduan jarri nintzen pena bihotzetik.
3. Ametsak amets dira gaur heldu nitzaitzu,
Zurekin egoitera balin bada aizu,
Otoi, otoi, atea ideki daitazu,
Baldin bazire nitaz urrikalmendutsu.
4. Bai urrikari zaitut, zu ene maitea,
Bai eta pena ere egin hertzean,
Oraindik ez dezaket ideki atea,
Ene aita eta ama lokartzekoak dira.
- 5 ...
...
Zure boza dudanean entzuten kanpoan
Ogetik jaiki eta jartzen naiz leihoan.

Benane ZAMORAren ahotik, Frantxua IRAZOKIri ikasiak.

XLVII

Haur batek amentsetarik erran daut

Airea: *Kazeta huntan agertzen dira bertsu berriak noiztenka*

1. Aments batean sartu izan naiz haurño baten erresuman,
Zoin ederra zen erakustea irri batez daut hitzeman,
Erran daut ere: “Atea hemen nun nola duzu hatxeman?
Ene bihotzak daukan gakoa zoin aingeruk dauzu eman?”
2. Gizona, zure begiak dira nereak baino gorago,
Ezin dituzu ikusi ahal lurpetik jin gauza frango,
Zure bizia lanbro batean beti airean badago,
Nerea aldiz garbi ta xume egiari hurbilago.
3. Aurrean dagon lore politikak erakusten du bizia,
Maitasunaren mezulari da bakezko urtxo eztea,
Usain goxoez gantzutua da kolore askoz beztia,
Aita hazlea zeruko hura, Ama aldiz iguzkia.
4. Zoin maite dutan sasuen petik kantuz ari den xoria,
Errexiñola, papo gorria, xoxo beltz moko horia,
Atzo batek daut goraki erran, neretzat, oi, zer loria!
“Zuri agur bat egin nezadan haizeak nau igozia”.
5. Anaiari tut oñoñak eman, pilotak eman zezala,
Hari begira jarri bainintzan, amultsuki berehala,
Biribila da, guziz polita, xuri xuria azala,
Bainan ez dakit hark maite nauen nik maite dutan bezala.
6. Haitz bat ederra, guziz azkarra, ikusia dut auzoan,
Ezkur ttipiak gora zituen elgarri irriz kaskoan,
Zenbait lurrean nigar handitan, haitzaren ondorat joan,
Nahi baitzuten goxoki egon beren amaren altzoan.
7. Arbola, xori, osto ta lore, guziak ditut maitatzen,
Horiekilan solastatzen naiz, horiekilan jostatzen.
Ez dute hoiek samurgoarik, bakea dute bilatzen,
Eta hargatik, gizon gaixtoak ari dira denen hiltzen.
8. Haur horrekilan egon bainintzan, bozkarioz amentsetan,
Atzarri eta trixtatu nintzen, nigar asko begietan,
Aments hau nuen: “Haurtasun hori sort baledi gizonetan,
Ez zaitekela hoinbertze herra gure mundu trixte huntan”.

Jako IRUBETAGOIENAREN ahotik.

XLVIII

Sortu naiz Iparrean

Sor - tu naiz i - pa - rre - an, u - da - ren has - te - an,
 U - so u - me ba - ka - rra o - han - tze ba - te - an,
 Ai - ta - mek nau - te ha - zi, ai - ta - mek nau - te ha - zi, lu - ma - tu ar - te
 an! Zo - ri - o - na go - za - tuz hi - ru - ek ba - te - an.

Airea: *Iruten ari nuzu*

- Sortu naiz iparrean, udaren hastean,
 Uso ume bakarria ohandte batean,
 Aitamek naute hazi, aitamek naute hazi,
 Lumatu artean!
 Zoriona gozatuz hiruek batean.
- Mundurats agertzean biluzia nintzen,
 Amattok hegalpean ninduen berotzen,
 Hazkurriaren biltzen, hazkurriaren biltzen,
 Aita zen ibiltzen...
 Nork erran ni ttikian zenbat gosta naizen!
- «Zure hegalak aski lumatu orduko,
 Ostoa eror denbora, zauku etorriko.
 Iparretik Hegora, Iparretik Hegora,
 Gare airatuko;
 Nik lagunduz bidean etzare galduko”.
- Iruzkia zenean sortzera apaldu,
 Ihiztariak zuen sarea zabaldu.
 Ez da behar itsua, ez da behar itsu,
 Gidaritzat hartu;
 Ez bertzen erranari sobera fidatu.

5. Zonbat uso oinezko...hegalik gabeko
lhiztariak aiher hetaz jabetzeko!
Kasu egin dezaten, kasu egin dezaten,
Ez naiz ixilduko;
Bertzela saretara tuztela bilduko!

Ganizon BERGARA «Txistu»-k eskainiak.



2000.07.16. Benane Zamora

Usa ume batek kondatzen du bere hurreko bizia, bere aitamen erdian; amak emaiten dazko zonbeit kontseilu udazkeneneko bidaia luzeari buruz.

IL

Sukar malina

1. Agur oi izar maitea iduzki eder begia,
Zure gatikan nik utzi niro bizi naizen herria,
Eta aldera zure ganatzen, izar xarmegarria.
2. Mintzo zira ederki, ederki eta oneski,
Zure ganik nahi nuke jakindu nik bereziki,
Noiz izanen naizen zuretzat izar edo iduzki.
3. Zazpi urte ia baditu uda honetan konplitu,
Amodio perfekt batez zintudala maitatu,
Bainan orain ni beldur nauzu zu zaren kanbiatu.
4. Eri nuzu bihotzez erraiten dizut bi hitzez,
Sukar malinak harturik nagozu ez izaitea beldurrez,
Otoi, otoi har nezazu, hil ez nadin xangrinez.
5. Gaitz ororen kontrako erremedioak badire,
Sukar malina baldin baduzu zerbitza zaitte barbarez,
Eta ez neregana jin ni mediku beharrez.
6. Urre-eraztuna badut nik bere ederrez harturik,
Hura ikusi arteraino zure erian sarturik,
Ene bihotzak ez du izanen oren bat deskantsurik.
7. Urre eraztuna baduzu, bertze norbaiti emozu,
Neure erian sarturik segur ikusiren ez duzu,
Bertze zonbeit ahal duzunez entseia hobe duzu.
8. Oi eper zango gorria airean joaille propia,
Lehen bertzeekin ibili, bainan orain neuri guardia,
Zoaz begien bixtatik parabolaz betia.
9. Noranahi joan nadin ene bihotza zurekin,
Nihon ez dut plazerik hartzen ene gazte lagunekin,
Non ez zaitudan ikusten zure begi ederrekin!
10. Arrosak eder botia, edertxago du loria,
Lehen bertzetan ibili eta orai neri gorthia,
Zoazkit begien bixtatik parabolaz betia.

Milafrangarra. Benane ZAMORAre ahotik. Frantxua LAZKUBEri ikasiak

L

Ene maitia xarmagarria

1. Ene maitia xarmagarria,
Dohain ederrez zirela bethea,
Zuk egin afruntua sartu zait bihotzera,
Heldu baitzait gogora ardura.
Nik orai pena; zure malura
Denborak emanen du agertzerat.
2. Xoratu nauzu, tronpatu nauzu,
Ene bihotza eritu dautazu.
Denborak beharko du ene pena kasatu,
Bihotz alegeratu, sendatu;
Hobe bat ustez nauzu kitatu
Zure malura hortan egin duzu.
3. Zuk kitaturik, xangrinaturik,
Bi urthe egotu naiz pasaturik,
Ene bihotz tendrea, nihor maite gaberik,
Etzagoken bakarrik, tristerik.
Maite berri bat du hautaturik,
Hark ezarri nau alegeraturik.
4. Adio enea, lehen maitea,
Desir onez dut bihotza bethea.
Zuk egin afruntua aspaldi barkatua,
Desir dautzut, gaixoa, zerua;
Munduan ere bizi luzea,
Eginik zure gostuko maitea.

Donamartiriko Ganix HALSOUET. Senpere.

LI

Xori errexinola

1. Xori errexinoleta ederki kantatzen,
Bazterrak oro ditu xoratzen,
 Bart arratsian,
 Sasi batian,
 Biga ziren,
 Eder ziren,
 Xarmant ziren,
 Manera oroz,
Bai eta biak elgarren agrados.
2. Bata zen arra eta bestia emia,
Ez zen ez mirakulu parekatzia,
 Lehen ere,
 Dударik gabe,
 Ikusi ez balu,
 Arra hura,
 Ez zen joanen,
 Sasi hartara,
Emia jin ez balitz bide erditara!
3. Xori gaixuaren beldurti haundia,
Ikustiaren ihiztaria,
 Batto han gaindi,
 Hain inozentki,
 Pasatzen zela,
 Arra hura,
 Beha jarri,
 Eta hor gero,
Sasian sartu zen han gordetzeko.

LII

Urso tortoila eta Amerikanoa

1. Nexkatxa gaztia hogoi urtetan adinez xarmegarria,
Zure bihotza gorputz ederrrian azkarrik dago jarria,
Zoin zaren fina hertxi hertxia zirelarik ezarria,
Iduri duzu zeru gainetik aingeru bat etorria.
2. Buenos Airesen pasatu ditut hogoi eta zonbeit urte,
Ene bihotza ez da mintzatu hunarat etorri arte,
Goiz ezti batez primaderian nindagolarikan trixte,
Izar eder bat ikusi nuen geroztik hura dut maite.
3. Zure solasak xuriak dira, gaixo donado zaharra,
Zure saretan ene biltzeko etzira aski azkarra,
Izana gatik nasai bildua urrea eta zilarra,
Zure distirak ez du argitzen ene zeruko izarra.
4. Ihiztaria zu omen zira kurikaria lenena,
Ez omen duzu naski egiten soineko zapaten dina,
Zure saretan ez da sarturen maite duzun urtxo fina,
Urtxo tortoila ez da egina donadoen egazkina.

LAZKANOn ahotik.

LIII

Haundizki kolpatua bihotzean dut min

1. Haundizki kolpatua bihotzean dut min,
Penetan jarria naiz izanik atsegin (bis).
Maite bat bihotzean sartu zautan behin,
Tronpaturik utzi nau segida batekin.
2. Adin ederrean hemeretzi urte,
Munduko penetan dut hartu behar parte,
Uros ta alegera nintzen orai arte (bis).
Uste nuen betikotz ninduela maite.
3. Igande arratsalde berdin arratsetan,
Maitea neuregana heldu zen frangotan,
Ez aspaldi oraino burasoen bixtan,
Ezkonduko ginela hitzeman zautan.
4. Bihotzez otoizten dut zeruko jaun ona,
Eman dezadan otoi neri osasuna,
Ohorezki hazteko jin beharra dena,
Aitarik ez izanez maita dezan amak.

Frantxua FAGOAGA "Apeztei"-ren ahotik.

LIV

Euskaldun neska bat Bordelen

Airea: *Dama gazte xarmant bat...*

1. Pasaian izatu naiz doi-doia Frantzian,
Euskal Herri maitean zer alegantzian,
Gogoetak bat badut gu denak bizian,
Kurrituz gabiltzala esperientzian.
2. Egun dudan sujeta ez da irringarri,
Zuzenerat joanez da deitoragarri,
Bordelen gertatu zaut kasu bat galgarri,
Neskentzat zenbait kobla nahi tut ezarri.
3. Baserritik neskatxak hirirat ihesi,
Euskal Herrian ere asko badoatzi,
Partitzean serios ta gero goraintzi,
Ongi gordetzen dute nola diren bizi.
4. Bainan nik erranen dut ikusi dutana,
Bordeleko hirian neska euskalduna,
Bizitze berri bati han dago emana,
Mila liberarentzat egiten du lana.
5. Lan hori zer daiteken nik ez dut errango,
Zeren hirian baita holakoa frango,
Hamar manamendutan bat bada akabo,
Denbora joanago fedez ahulago.
6. Burasoek ez dute hanbat arrangura,
Berri onak dituzte ukaiten ardura,
Agerian den gauza eta hau segurra,
Plazer lizunetarik ez dago barura.

7. Euskal Herrin dakitan xokoño batean,
Ez du hori ikasi hak bizkitartean,
Ulerturen nauzue guziek agian,
Baionatik has eta Maulerat artean.
8. Familia onetik jalgitzen da segur,
Hango bizi moldeaz iduriz ez beldur,
Lehen etxe zaintzeko bazuzten lau zakur,
Bordelen ez baitute bada aski makur.
9. Adixkide maiteak, izan zaizte ontsa,
Bertsuen ikasteko har zazue funtsa,
Kanbiatuko dela izan esperantza,
Galdeginez harentzat zeruko laguntza.

Joanes ETXAMENDI Buztintzekoa 1934-1971. Jako IRUBETAGOIENAREN ahotik, Urkoiko MINABERRIren laguntzaz.



2000.07.16. Jean Noël Bessonart, Martxel Brave

XX. mende huntan, milaka izan dira beren herria gazterik utzi duten euskaldunak, maizenik lan eskasagatik, kanpotik beste hainbertze etortzen zirelarik. Burasoek, etxeokoez zer kondizionetan, zer funtsetan bizi ziren jakin gabe. Senperen ere kantatzen ziren jakin gabean, Joanes ETXAMENDI zenaren bertsoak.

LV

Denboraren ekintzak

1. Denborak egin gaitu guziak mundura,
Denborak ereman du lehen egun hura,
Denborak eman derat desira burura,
Denborak sar gaitzala hiltzian zerura.
2. Denborak beretzen ditu aberats eta pobre,
Denbora ez delakotz deusetan herabe,
Denbora iragaiten deusik erran gabe,
Denbora eginen da gu guzien jabe.
3. Denborak ibiltzen ditu gau eta eguna,
Denborarekin orok ikusten duguna,
Denborak egiten du denen ontasuna,
Denborak atsegabe bai eta fortuna.
4. Denborak ibiltzen du lanoen sorgia,
Denborak iguzkia eta ilargia,
Denborak edertzen du izarraren begia,
Denborak erranen du geroan egia.
5. Denboraz egin ziren zeru eta lurak,
Denboraz ibai eta itsasoko urak.
Denboraz sartu ziren gorputzen hezurak,
Denboraz atseginak eta errenkurak.
6. Denborak deramazka gau egun guztiak,
Denborak hilabete bai eta urteak,
Denborak emanen ditu on eta kalteak,
Denborak itzaliko munduko usteak.
7. Denborak berak ditu bazterrak edertzen,
Denborak landetako liliak agertzen,
Denborak zuhaitzetan fruituan ekartzen,
Denborak nahi dueno ez dira erortzen.
8. Denborak ezartzen ditu munduko ibaiak,
Denborak itsasoan urrezko mendoiak,
Denborak derabiltza airian hodeiak,
Denborak urritzatzen mendi eta zelaiak.

9. Denborak sortzen ditu lurreko haziak,
Denborak kontserbatzen orenen biziak,
Denbora badabiltza izaite guziak,
Denbora dabil jainko jaunaren graziak.

10. Denborak bizi gaitu bere on gaitzekin,
Denborak hilen gaitu guziak berekin,
Denborak sar gaitzala zorion batekin,
Denborak gozatzer aingeru onekin.

IRIARTE



2000.07.16. Jan Pier Soudre "Ixtilarte"

LVI

Nausia, mutila eta erbia

1. Behin mutilarekin, nausi bat ari zen,
Larre zabal batean, iratze pikatzen,
Toki hura erbiez famatua baitzen,
Han ihiztari zenbait egun hartan bazen.
2. Bet betan tiro batzu hor dire aditu,
Gure gzonek ere burua goititu,
Erbi bat heier buruz herrestan zen heldu,
Gaixoak berehala indarra du galdu.
3. Nausiak laster batez erbia harturik,
Ezpal baten pean du ezartzen gorderik,
Irri gozo batekin erden duelarik,
“Erbikiz haseko nuk mutil, ni segurik!”
4. Mutilak bere baitan hitz hoik entzun eta,
Zioen: “Jasta ere enetzat ez duka?
Ai! merezi huke to, gantz handi gormanta,
Jabeak jin balite eta gal baheza.”
5. Hain sarri bi jaun ziren hetarat etorri,
Galdez eian erbi bat zuten ikusi,
Ezetz zeien nausiak murriz ihardetsi,
Eta bere lanari lotu zen zorrozki.
6. Mutilak aldiz keinu ezpalen aldera,
Salatzeko bezala han zerbait bazela,
Jaun heiek atzemanik erbia horrela,
Jotzen dute nausia lihoa bezala...!
7. Pasoz erdi hantua nigarrez utzirik,
Ihiztariak urrun bazoazilarik,
Mutilak erran dio irriz dagolarik,
Nausia hartu tuzu zanpak..., zuk segurik!
8. Egintza hunek dauku ongi erakusten,
Nola garen lur huntan elgarren behartzen.
Zorionean bertzez ez dena oroitzen,
Zorigaitzean lagun guti du izaiten.

A. AINTCIBURE, Zabaltzarra. Aire: Paxkal MENDIBOURE

LVII

Erioa

1. Paratu behar ditut bertso bat edo bi,
Zer gertatu zaukun azkenean guri,
Pentsatu ez dugula erioa etorri,
Kontuan emaiteko arima hori larri,
Ojala holakorik gerta ez baledi.

Ganizon BERGARA,"Txistu"-k eskainiak.



2000.07.16. Arbonako Ximun, Dolores Etchebeste-Fagoaga, Fifin Billon, Gabi Fagoaga, Frantxua Fagoaga, Ganizon Bergara, Laurent Elhorga, Jeanne Ibarra-Bereau, Pierrot Borda

Azken orenean berdinduko gaituen erioari.

LVIII

14ko Gerlako kantuak

1. Ene izpirituan hasten naiz pentsatzen,
Gizonaren bizia zer gisetan den,
Egia ez da errex xuxen esplikatzeko,
Hainitz justizia baitute ezagutzen,
 Gu penez higatzen,
 Elgarren xahutzen,
 Bat bertzia hiltzen,
 Odola ixurtzen,
Bertze hainitz urrundik irriz asetzen (bis).
2. Hemeretzi ehunta hamalagarrena,
Agorrako hilaren lehen eguna,
Eropako gerla bat deklaratu zena,
Frantzia azkar ginen bazela zuzena,
 Legiak emana,
 Denentzat berdina,
 Zerbitzuko on zena,
 Biltzeko ordena,
Bainan espekatzeko da diru duna (bis).
3. Partitu ginen beraz guziak herritik,
Gure familietan penak utzirik,
Haur tiki zonbaitekin andriak bakarrik,
Gizonak penatuak hor ez da dudarik,
 Orduz geroztik,
 Dabilana xutik,
 Zerbeit ikusten dik,
 Penaren partetik,
Hilak bere konduak eginak ditik (bis).
4. Zonbait gizon alferren kaprizia gatik,
Jende miserabliak hor pekatzen ditik,
Ainitzek ez diagu ardit baten lurrik,
Bertzenaren ontutzen gabiltzak bakarrik,
 Aberatsetarik,
 Ainitzak segurik,
 Urrun dituk sutik,
 Diruaren gatik,
Gu hemen hiltzen hoienuen manuen gatik (bis).



Mattin Irabola (Senpere, 1879-1935)

14^{to} Forlaco cantuac

1

Neri izpirituari hazi naiz pentsatzen
 Gisonaren bizia ser gizenan den
 Egia es da erreche eluchun explicatzen
 Hainitz injustisia baitute esagutsen
 Gu pines ligatsen elgaren gahutzen
 Odola ichurtzen bat bertria fultzen
 Bertse hainitz urundic irris esetzen

2

Hemiretzi chuinta hamalangeren
 Agorraco hilaren lehen eguna
 Erropaco gerla bat declaratu senu
 Frantbian ascar ginen basela susena
 Legiac emana denentsat berdina
 Terbitaco outseno beltzeco ordena
 Baiman aise espicatzen da diru duna

3

Partitu ginen beras gusiaco ferritic
 Chure familietan penac utzire
 Haur tiki rombatekin antziac bacare

Gisonac penaturac hor esta dudant
 orduz gerostic dabilana chutic
 Gerbit-ikusten die penaren partetic
 Hilac boe conduac eginae ditic

5. Izpiritu duenak errex du pentsatzen,
Gure diferentzia zombatekoa den,
Haundiak ari dira ttipien manatzen,
Pobrearen indarrez galonez altxatzen,
Ohorez haunditzen,
Mirailez bezitzen,
Diruaren biltzen,
Intresen doblatzen,
Gu horien manutik elgarren hiltzen (bis).
6. Gerla hunetan parte izatu duenak,
Segur ezagutzen dik zer dituen penak,
Gogoan baitituzte aita amen grinak,
Bertze zombatek aldiz andre ta hurrenak,
Lagun baduenak,
Berak ere lanak,
Gau eta egunak,
Irriskuan denak,
Zer konda behar likek hiltzen ez denak (bis).
7. Zonbat amaren seme dolorez haziak,
Hemen uzten dituzte gaixoek biziak,
Inorantzia batez hunat etorriak,
Hekien plazak dira nigarringarriak,
Orobat erdiak,
Beltzez estaliak,
Odolez betiak,
Inozent trixtiak,
Zonbait alferren gatik hoiak guziak (bis).
8. Etsenplu har dezagun zentzuan garenak,
Ikusirik munduan diren xangrinak,
Umilia gaitezen Jainkoari denak,
Ofreituz gu baitan diren bihotz minak,
Hemen gaizki inak,
Bai justu direnak,
Plazer eta penak,
Pasatzen tugunak,
Jainkoak jujaturen tik horiek denak (bis).

Senpereko Matxin IRABOLA zenak eman bertsua. Senperek eman duen bertsolari haundiena. 1935eko urtarrilaren 20ean Donostin 2garren saria eraman zuen. Lehena Basarrik eraman zuen. Garai haietan, jende ainitz bezala, ez zekien ez idazten ezta ere irakurtzen. Arras bertso guti salbatu dira.

LIX

Aleman Inperadore Guillaume

A - le - man in - pe - ra - do - re Gui - llau - me ai - pa - tu -
 a, Ur - gu - lu, ba - ni - ta - te
 haiz in - gu - ra - tu - a Muns - tro a - sa - si
 - nan - te Gui - lau - me ai - pa - tu - a
 O - rhoit - a - di ba - de - la ze - ru - an Jain - ko - a.

Airea: Iparragirren *Gitarra zahartxo bat*

1. Aleman inperadore Guillaume aipatua,
Urgulu banindate haiz inguratua,
Munstro asasinante Guillaume aipatua,
Orhoit adi badela zeruan Jainkoa.
2. Zenbat miliun gizon hik ez duk funditu,
Tenplorik ederrenak erre eta suntsitu,
Pertsonik honestena hik han deshoratu,
Luze edo laburki beharko duk pagatu..
3. Orhoit adi badela tribunal fina,
Hire kondenatzeko berria egina,
Hortan salbatzen bada Kaiser-en arima,
Gure erlijioa ez da arras fina.
4. Pertsu hauen emaila berenaz Senpertarra,
Hirurogoita hamarreko soldado zaharra,
Berriz zerbitzatzeko joan zaio indarra,
Galdearen begira dago hilerrietara.

Bidaxun zenak emanak, Pierrot BORDA-ren ahotik

LX

Agorrilaren hasieran (14eko gerla)

1. Agorrila hasieran hasten naiz kantatzen,
Egun urte beteko egunaz oroitzen,
Mila bederatzi ehun ta hamalaua baitzen,
Gerla izigarri bat Europan hasi zen,
Orduan piztu sua oraino ez da hiltzen.
2. Laster jin zen berria Amerikan barna,
Deiadar bat samina Frantses haurregana,
Ikaran zegoela gure erresuma,
Bainan lagun gaitzala nola umek ama,
Eta aiza herritik etsai gaixtakina.
3. Bertze zonbait bezala bainaiz Frantses haurra,
Eta euskaldun seme Landibartarra,
Ameriketan utzi dut parada ederra,
Irabazten bainuen urre eta zilarra,
Fortuna egin orde jin naiz gerlarat.
4. Ongi besarkaturik arreba maitea,
Nigarrez utzi nuen gaixo haurridea,
Nik buruan hartua huna gosetea,
Egia erraiteko espantuz betea,
Ez zala ez izanen gerla bat luzea.
5. Kasernan sartu nintzen gero zonbait aste,
Armaren erabiltzen ongi ikasi arte,
Gero handik aintzina igorri ixtante,
Gerlan ari naizela hamar hilabete,
Hainbertze irautea nik ez nuen uste.
6. Gerla zer den ez daki ikusi ez duenak,
Hemen nola dabiltzan gau egun gizonak,
Beti lanean ari ezinduak zainak,
Hazi batzu bezala lurpean erainak,
Hola tratatzen gaitu etsai alemanak.

7. Nitaz kanpo badira bi anaia suan,
Hek ere han baidaude ainitz irriskuan,
Hiruak bizi gare bai orainokoan,
Laguntzaile bat badugu ama bat zeruan,
Hura otoizten dugu guk behar orduan.

Arbona Harretxeko Laurent ELHORGAREN ahotik



2000.07.16. Kantu zaharraren eguna. Bazkaria

Ezpeletako Hotel Euzkadin, Senpereko Jean Olatz-ek eta Estebe Dolosor-ek “uste gabekoak” kantatu zituzten. Hor suertatu ziren aleman soldadoek kantuz segitzeko turnadak eskaintzen ziozkaten, ederki ari baitziren bi bozetan . Bero beroak ateratu ziren.

LXI

Francoren xaparrotian

Airea: *Ixil ixilik*

Francoren xaparrotian,
Queiporen bigotian,
Hoiiek eman gaituzte preso ugarian,
Franco batto, Hitler bestea, hirugarrena Queipo,
Horiek dira destinatuak hiruak infemurako.
La,la,la,la...

Frantxua FAGOAGA, "Apezteia".



2000.07.16. Dolores Etchebeste-Fagoaga, Olandeiko Fifin, Austeiko Gabi

1936 inguruan izanen zen. Ibarrun eskolan entzun zituen bi errefuxiatu hola kantari

LXII

1936ko Espainiako Gerla

1. Espainiako gerla nahi dut esplikia,
Huna bertsu berriak kantuz politika,
Zerengatik ari diren gizonak milaka,
Jada bi urte huntan bat bertzearen hilka,
Jainkoaren lege zuzenaren aurka.
2. Bere zuzenean zen gobernamentua,
Lehen nagusi zirenek bozetan galdua,
Desgostuan zelako hango populua,
Frente Popular zuten bozetan sortua,
Kintze egiten duenak hartzen zakua.
3. Sakatzearen ondotik jin da errefera,
Frente Popular ez zen alferren gostura,
Zerendako ez utzi bertze bozetara,
Legez ez zezaketen auzirik atera,
Deliberatu dute gerla ematera.
4. Gauza izigarria mundu huntan gerla,
Pobrearen bakantzeko asmatua dela,
Aberatsa zokotan gordeka dabila,
Erredoblatzen dute beren kapitala,
Kintalka fabrikatuz obus eta bala.
5. Nun dire emazteak, haur eta xaharrak,
Pusketan xehatuak badire bakarrak,
Espekatu direnen oinaze negarrak,
Egoitzak suntsituak, galduak senarrak,
Horra Frankotiarren egintza ederrak.
6. Aleman, Italiano, Marrokano beltza,
Burrego izan dire Espainiarentzat,
Hoi en gobernatzaile Franco odol hotza,
Heriotzez suntsitu zonbeit ume xurtza,
Horra nolakua den fasisten bihotza.
7. Mundu guziko fasistak dena brantxa bera,
Laister hel iten dute elgar laguntzera,
Gure enganatzeko gezur erraiterat,
Pobrea errestan dago horientzat hobe da,
Merke jin dakioten gauza mahainera.

8. Gizon frango bada “travo forces” denik,
Hoiiek baino gutiago merezi duenik,
Franco behar litake han sartu lehenik,
Segi dezan Hitlerrek eta Musulini,
Fandanguen emaiteko Larok laugarreni.
9. Jainko jaunak emanak hamar manamendu,
Bortzgarrena nola den emazue kondu,
Gaixtaginak ifernua desafiatzen du,
Ez luke izan behar nihun barkamendu,
Gauza bera behar du hark kondenamendu.
10. Konfiantza badut munduarendako,
Zuzentasuna egin duela nahiko,
Erresponsable dela Generala Franco,
Espainiako gerlan hil direnendako,
Sinesten ez duena ez da katoliko.
11. Baketiar denari Alemanak Gerla,
Froga Hitleren banda lanjerosa dela,
Haren lagun haundia Franco Generala,
Lagundua bai gizon bai materiala,
Legeen gainetik doa ixuriz odola.
12. Kantu hauen emailea da Arrangoitzeko,
Eskola gutirekin kurrutzen du frango,
Eskolatua banitze kargutan sartzeko,
Legeak alda nitzazke pobreen argitzeko,
Ez gira kreatuak elgarren hiltzeko.
13. Noiz argituren zaio pobreaki bixta,
Ikusiko duena zertsu den fasista,
Mundu enganatzaile faltso hipokrita,
Ttikientzat promesak haundiak profita,
Dugun kanta goraki, Biba Errepublika!
14. Huna azken bertsea hamalauagarrena,
Kondu errenda dadin inoranta dena,
Noizbait geldi dadien pobreen asesina,
Otoi gure buruak ez guhaur kondena,
Bozetan hauta gizon pobreentzat on dena.

Martin GARIADORen bertsoak. Olandeiko Fifinen eskutik.

5
 Alundire emazteac haur eta chahamae
 Pusketan hiestuac badire bakarrae
 Espiekatu direnen cinage nigarae
 Egoitzae sumtzi tuae galduae sinarae
 Ora francotiaren eginba ederae
 6
 Holiman italiano marokano belba
 Burego izan dire espainarentzat
 Cien gobernabaili Franco odol hotza
 Beriotas suntsitu sonbeit une epurticha
 Ora nolakua den fasisten bihotza
 7
 Alandu guzico fasistae dena brantcha bera
 Gaster hel iten dute elgar laguntzera
 Gure enjantzico gezur emaitzat
 Pobrea errestan dago horizonta obeda
 Alberke jin dakieten guzua mapinera
 8
 Gizona frango bada travo forces denie
 Noiee baino gutiago merzue duente
 Franco behar litokie han sartu behene
 Segi dezan Hitlerre eta Musulini
 Fandanguen emaitco Garok laugareni

9
 Jaiuco faurac emanae hamar manamenera
 Bortz garrena nola den emazue conde
 Gaicbtoginae ifernua derabatsen de
 Es luke izan bea nihun barkamendu
 Gauza bera bepar da hare condenamendu

LXIII

1936ko eta 1940ko Gerlak 9 urte Gerla

1. Mila bederatzi ehun ta berrogeita bost garrenean,
Kantu berriak jartzera noa Euskal Herriko partean,
Miseria ta negarra zen joan den bederatzi urtean,
Orai gerla hau fini da eta alegeratu gaitean.
2. Espainian hiru eta Frantzian sei, hola dira bederatzi,
Denbora hoietan aditu dugu zenbat nigar eta antsi,
Gizon batzuek ez zirelako burutikan ongi jantzi,
Hobe ginuen egin balitu otso tzar batek iretsi.
3. Aita eta amak semeak hazi gero ereman gerlara,
Handik hiru lau egun buruko balakin hilda lurpera,
Mendiko pizti gaiztoen gisa konparazio batera,
Nahigabe haundia heldu da hortik burasoen bihotzera.
4. Sortu ginala beste faltik ez, modu hortan hil beharra,
Oroitutzean begietara etortzen zait negarra,
Kanoi ta obus ta aeroplana alde denetarik garra,
Gerra sumatu zuen etsaia etzan izango alferra.
5. Aleman hoiak saiatu dira gizon hiltzeko lanean,
Kanoi eta obus eta abionekin beti edo gehienean,
Behin ere ez dire ibili horiek oso bide zuzenean,
Bainan azkenean aspertu dira Berlin galdu dutenean.
6. Aleman horiek, gaiztakerian ibili dira nun nahi,
Kontrarioa agertzen zaio gaizki hasten denari,
Alemanian bada jendea lurperatua ugari,
Horiek Gernikan egin dutena egin diote berari.
7. Mineral horren ibili ziran Bilbotikan Baionara,
Franco zikinak eman zioten nahi duenetarik aukera,
Lau urte eta bi hilabete hortan gutxi gora bera,
Gero erdiak Frantzian utzita trixte joan ziren etxera.
8. Aleman hoiak ez ziran heldu Frantzia aldera asiak,
Herras y borras jaten zituzten igarrak eta eziak,
Horientzat gutxi izaten ziren sortu ahal ziren klasiak,
Amerikanoa etorri ez balitz hilko ginuzen guziak.

9. Aleman horiek egina dute hamaika saio eder,
Mundu guzia beretu nahirik gutxienez mila bider,
Hamalauean kaiser izan zen, hogeita hemeretzi Hitler,
Horiek biek ere ez dute izan uste zuten hainbat indar.
10. Zenbait gizonak izaten dute espantu eta grandesa,
Begietako argi ona ta inork ikusi nahi eza mundu guzia,
Berendu nahirik aleman ta japonesa,
Baina etzaie ongi atera eginda zuten promesa.
11. Zaindari batzuk egin zirelako pixka pixka bat tronpatu,
Soldadu asko egina zuten alemanek preso hartu,
Presonierek bost bat urte ederki dute sofritu,
Orain etxera egin direnak bizi dirade kontentu.
12. Frantzian sartu ziren orduan Aleman horiek kontentu,
Xanpañarekin eta koñakarekin egiten ziren mozkortu,
Oihu ta irrintzin ibiltzen ziran, baietz Gibraltarren sartu,
Tenore honetan ez dute izango orduan hainbat espantu.
13. Ai gerlak eta zikinkeriak lau gizon direlako,
Hoinbertze amaren seme trixterik bizia laburtutzeko,
Franco bat eta Hitler bertzea, Mussolini eta Queipo,
Horien arima destinatu omen da ifernurako.
14. Gizon horiek ibili ziran etsaiarekin batean,
Hameka saio egina dute mundu gehienek kaltean,
Horien arima lotua dago deabru tzarren katean,
Luziferrekin daukate gerra bere etxera joaitean.

J.B. TAPIA-ren ahotik

LXIV

Bertso Berriak 1945ean emanak

Airea: *Senar-emazte batzu puxantziar*

1. Hemeretzi ehunta berroita borzgarrena,
Gudu izigarria akhabatu zena,
Europar nausiturik gure alemana,
Oldar gaitzean izan da gibelara joana,
Etsaiaren saretan ongi atxemana.
2. Angelesak, Rusiak eta Amerikak,
Ideki derauzkute Europako bortak,
Libertate haundian emanez Frantsesak,
Laster igorri tuzte gibelarat boxak,
Laguntzat harturikan gure bolonterak.
3. Frantzia oldar batez kasik libratu-rik,
Egotu izan ziren aphur bat geldirik,
Materiala pasatuz plantatu hazkarrik,
Ofensiba handia zapartatu hortik,
Primadera hastian muga guzietarik.
4. Hitler eta Himmler-ek zuten atxikitzen,
Kapitulatzia horiek etzuten onhartzen,
Horien soldaduak ziren entsegatzen,
Bizia galdu arte zuten atxikitzen,
Galduak zitazkela baitzuten pentsatzen.
5. Hitler hire aliantza italiarrekin,
Laster zauk akhabatu Mussolinirekin,
Horrek kargua utzi bai arrazoinekin,
Badaglio itzuli bere indarrekin,
Hire kontra gogotik Amerikanuekin.
6. Hitler ateratu zauk anitz kontrario,
Etsai bat gehiago hire Badaglio,
Horrek ez dauk ez egin frango laudorio,
Haren bila joatea etzuen balio,
Mussoliniren gisa gaizo Badaglio,
7. Hitler urrun izan haiz hire armadekin,
Soldadu ero eta buru beroekin,
Europa purruskatu aire xoriekin,
Rusiako hegal bat ere bai horrekin,
Errebantxa izan duk partida onekin.

8. Ikusi izan diuk gure begiekin,
Churchilen forteresa Amerikanoekin,
Iguzkia kukutzen aire xoriekin,
Bai eta bonbardatzen adreziarekin,
Segurki lagunduak beren «chasseur»-ekin.
9. Erresuma horiek noiz dituk hartuko,
Hala Europa bazaik aski hiretako,
Laguntzaileak menturaz zauzkik etorriko,
De Gaulle-i galdazak kontseilu hortako,
Ez bahaiz herabesko hari agertzeko.
10. Guk estimatzen diuk bai de Gaulle jauna,
Aliatu horiekin egin duen lana,
Horieri esker gituk izan hortik jauna,
Industria hoitarik, oi zer atsegina,
Rutabagaren uztiauk zaukuk eman pena.
11. Hitler ikusi diuk hire debandada,
Aliatuen aitzinean Himmler-en armada,
Beren gudu tokietarik gibelerat joana,
Gu gibeletik gaituk izan emana,
Lagunak libratzeko jin arte gugana.
12. Presonier eta zibil haur eta emazte,
Hitler kurritu gituk *boxak* galdu arte
Maiatzaren hiruan jin zaikuian fite,
Angles soldado bat galant eta gazte,
Guardianuen biltzerat joan baitziren triste.
13. Hogoï eta hamar zantinel ofizierarekin,
Errendatu zeraizko ikara batekin,
Heien armak hautsirik oi atseginekin,
Kukutu genituen ongi lurrarekin,
Alemanen aintzinian Angles harekin.
14. Hitler sobera nahiz izan haiz galdua,
Eta hire lagunez oi enganatua,
Nausi izan haizeno egin duk tratua,
Europatik eginez deportamendua,
Orai zuen aldia duk arribatua.

Noël DUHALDE, *Itsasu*

LXV

Parisetik Algeriako lagunerri

Le-tra bat i-za-na dut su-je-ta ho-rre-la, Eus-
 kal-du-nak zi-koiz-ki, ta bi-zi-gi-re-la: A-han-tzi-a du-
 gu-nez, Al-ge-ria-ko ger-la? Gu-re hau-ri-de-ak han o-
 rai-no di-re-la! Le-hen ni e-re hor-tik, hu-na-rat kan-ta-
 ri, Me-men-to i-lu-ne-tan, u-su-nin-tzan a-ri:
 E-rre-pos-tu i-ten dut, u-kan gal-de-ra-ri:
 Ne-re sor-le-ku-ti-kan, la-gun xa-ha-rre-ri.

Airea: Bordaxuri, *Euskal Herrian denak isilik dagotzi.*

1. Letra bat izana dut sujeta horrela,
 Euskaldunak zikoizki, ta bizi girela,
 Ahantzia dugunez, Algeriako gerla?
 Gure haurrideak han oraino direla!
2. Lehen ni ere hortik, hunarat kantari,
 Memento ilunetan, usu nintzan ari,
 Errepostu iten dut, ukan galdeari,
 Nere sor-lekutikan, lagun xaharreri...
3. Badakit segur zer den soldatasuna,
 Elgarren laguntzea dela ondasuna,
 Soldadoak maite du zinez batasuna,
 Bainan otoi konpreni gur' ixiltasuna!

4. Euskal Herrian denak isilik dagotzi,
Erreprosuri gabe nahi ditut utzi,
Gerlak hunkirik gaude, bai penetan bizi,
Xubero ta Lapurdi bai eta Garazi...
5. Ez otoi hau pentsatu, oi lagun maitea,
Ez zaukula balio zuen aipatzea,
Bainan huntaz fida naiz, zer ezin-bertzea!
Zonbait amentzat dela, begi-bustitzea...
6. Hasarratu zirade, ta hartu tupeta,
Ahantzirik ziztela, ez hortaz inketa,
Bakotxak bereaz du, aski pentsaketa,
Kurridan abitua baitugu Prefeta!
7. Primaderarik gabe, orai larrazkena,
Adin ederrenian negu ilunena,
Ainitz baita joanik hola erran dena,
Ikas zazue hortarik gure dolumena.
8. Sortzeak hiltzea zor, hau da katixima,
Gazterikan joaitea, gerlako sistema.
Pentsa zazu nola den bizi zure ama,
Beti ikaran noiz den jinen telegrama!
9. Horregatikan nehor ezin da mentura,
Bainan zuentzat gaude, otoitzez ardura,
Akaba dadila gerlaren histura,
Zuek etxera eta hilak sar zerura.
10. Gehio erran nio bai ahala banu,
Pertsulari eder bat, Jaunak egin banindu,
Bainan zuekin tugu gogo eta asmu,
Aipamenik gabe, baduzi estimu.
11. Izan zaizte untsa ta barka gure utsez,
Nere esplikua dut xuxen eman ustez,
Oroitzen baigirare horko nahigabez,
Goraintzi haundienak euskaldunen partez!
12. Pertsuen kantatzea, zuentzat sokorri,
Horregatik nahi dut, kasetaz igorri...
Koblari hobe batek nahi badu ezarri,
Galde egiten deiet Mattin Xalbadorri...

Jean ETXAMENDI & Jako IRUBETAGOIENAREN ahotik.

LXVI

Bertso berriak anaieri



Be- rri bat i- ka - si dut pla - zer han - di - e - kin, a -
nai - ak on - tsa di - ra o - sa - ga - rri - a - kin, u -
rru - ne - rat gan di - re ku - rai han - di - e - kin, a -
kor - di - o e - gin du - te A - me - ri - ka - re kin.

Airea: *Lili bat ikusi dut*

1. Berri bat ikasi dut plazer handiekin,
Anaiak ontsa dira osagarriakin,
Urrunerat gan dire kurai handiekin,
Akordio egin dute Amerikarekin.
2. Anaia lehena dute errege jarria,
Eskuratua baitu zabal dei haundia,
Nola edatua den oi! Eskual Herria,
Zerutik heldu zaio behar duen grazia.
3. Egina dute ere untzia berria,
Guretzat egortzeko behar den guzia,
Bidea eginen du bai ezti eztia,
Masta punta guziak aingeruz betia.
4. Zoragarri bandera urrezko gihala,
Frantziako lurretan laudatu beharra,
Hiru kolore ditu Eskualduna baita,
Dezagun beraz denek bihotzetik maita.

5. Goraintziak bihurtu aita eta amari,
Segetetu haundian maite pollitari,
Hurrengo urte hortan behar naiz etorri,
Amodioa baitaukat bihotzetik zuri.
6. Arbasoak ditugu zero gorenean,
Guri begira daude denak otoitzean,
Fedea zabal dezagun Frantzia guzian,
Gazte xumeak dira, oi, behar haunditan.
7. Gipuzkoano landare Eskualdun garbia,
Lortu eta hartu nuen bataio garbia,
Sebastian izena apezak emana,
Birjinak utzia dut holako dohaina.

Sebastian SARASOLA



2000.07.16. Christian Etxeverry (Betriene), Bruno Etxeverry, Pierre Etxave

LXVII

Gazte hiltzera dohana

1. Hogoï urtetara ari naiz hurbiltzen,
Nere oinetan tunba dut ikusten,
Ni zendako mundurat etorri naizen,
Ondikotza ez sortzea enetzat hobe zen.
2. Sekulan zoriona zer den jakin gabe,
Ainitz dut nik lurrean izan atsegabe,
Lore sortu orduko xistu baten pare,
Biziaren galtzera guti naiz herabe.
3. Ez, ez nau izitzen ni heriotzak,
Laster ken dezala bizia jainkoak,
Seaskan galdu ditut neure burasoak,
Zer diren ez dut jakin etxeko goxoak.
4. Aita ama maitea, zendako mundutik
Zerura joan zinezten ni hemen utzirik?
Ez dut nik mundu huntan ukan sosegurik,
Ez baitut ezagutu amaren muxurik.
5. Hamazazpi urtetan zorigaitz dorpea,
Izar bat maitatu dut parerik gabea,
Aingerua zaitezke zeruko umea,
Neure bihotz eritik joan deraut bakea.
6. Nahiz aingeru ona ez duzun sekulan
Munduan jakin izan zonbat maite zindudan,
Urusagoena gero jaunaren oinetan
Ez nazazula ahantz zure otoitzetan.
7. Anaia bat banuen ni haurra nintzela,
Soldadu joan zen eta nik ez dut berririk,
Aita amekin dela nik ez dut dudarik,
Neri begira dautzi hiruak zerutik.
8. Aitu badarama neure oinetan,
Burasoen aldera deitzen nau zorteak,
Nork ditu artatuko aitama maiteak,
Zuen tonba gainean nik eman loreak?

9. Nere gorputza doa lurrera orduko,
Nor ote da munduan nitaz oroituko?
Nere ehorts lekura nor da hurbilduko?
Lore berririk ez da neretzat sortuko.

10. Mendian ur txirripa harrien artean,
Auhenetan nigarrez jausten da bidean,
Izan nahi baluke zelai ederrean,
Hola ene egunak badoaz lurrean.

HARLOUCHIren kantua. Airea: Arbona Arretxeko Laurent ELORGAK emana.



2000.07.16. Pello Fagoaga

LXVIII

San Estebe egunean

Airea: Etxahun ta Otxalde. *Agur adixkidea Jainkoak egun on*

1. San Estebe egunean lehenbiziko buelta,
Aire puskatu dira Berara joanta,
Bati gusta izan zaio hitz horiek erranta,
Ikustekoak zirela neskatx hoién planta,
Ez zirela mozkortu ur hutsa edanta.
2. Erran bazuen erran ondoko egunetan,
Hor ibilia zira bakezko jujetan,
Antolamendua egin hogeí pezetetan,
Neska horiek gero kontent lorietan,
Besta egin behar dinau horien ohoretan.
3. Gauden urte berriko lehen igandean,
Hor ibilia dira Irungo partean,
Handik partitu dira ilunabarrean,
Aire puska ederra lagun bizkarrean,
Gaua pasatu dute nonbait iratzean.

Austeiko Gabi FAGOAGaren ahotik.

LXIX

Laborarien kantuak

1. Mila pasata bederatzi ehun hoge ta sei urte da,
Salbatzailea etorri zela bekatarien artera,
Sendimenduak bertsu berritan orai noa erratera,
Geroztik huna jende gaixtoen arraza galdu ote da.
2. Ezen hemeretzi pasatu dira hau hogeigarren mendea,
Aunitzek diote norat goaz gaixtotua da jendea,
Egia ditut publikatuko gezurra balitz hobea,
Neronek lehenbizi urrikari dut langile miserablea.
3. Mundu hau balitz zabalagoa halere gehiago galde,
Desira dugu neke gutirekin gauza guzia debalde,
Gure tartera heldu ez bada gaitz gaixto eta uholde,
Nahi eza ez oraindik elgarrentzat hasi beharrak gerade.
4. Lehenago ere aitonen batek hori egia erran du,
Lur huntan ez da hoinbertze alfer, Santa sekulan izandu,
Errekolta ´re gaur baino gehiago, lehen beti lurra eman du,
Nahi ta ez beharko lan egin edo jendea bakandu.
5. Aitona zahar hoierranak orai aparte ez dire,
Etxe guzia ostatu jarri eta landa denak bide,
Laborarien etxe maiteak abantxu erori dire,
Kapitalista pobrearentzat batere ez da kupire.
6. Teilatu traste pareta oker bat litaike desoratu,
Eginez geroz etxe horiek nihork ez du antolatu,
Laboraria engaiatu dela ta errentak doblatu,
Pobrearen neke ta izerdiz aberatsak kontsolatu.
7. Belarra bezain usu atera zaizkigu etxe berriak,
Ertxi ta labur altura guti iduri xori kafiak,
Horietan nahi ta ez bizi beharko duten familia ttikiak,
Horra zer gisaz apaindu diren Euskal Herriko tokiak.

8. Aitona zahar batek hala erran du duela ehun bat urte,
Etsai gaixtoek mundu triste hau xixifrikatuko dute,
Bazter guziak etxe ta bide bilakatuko dituzte,
Hori asmatu zuen gizonak bazuen zenbeit bertute.
9. Xapel handien menean gaude pobreak eta flakuak,
Beren eskuko hartu dituzte Euskal Herriko xokuak,
Bazter guziak etxe ta bide biba josteta lekuak,
Manera hortan ez daduzkazu beterik ogi zakuak.
10. Kapitalistak dira gradutan, jende pobreak soldadu,
Partikulazki laborariak kontrarioa sobera du,
Aberats puxant errege haundi dutenak hoinbertze gradu,
Denek goseak hil behar dute lurak ematen ez badu.
11. Adinak, gaitzak edo aizkorak bakandu ditu oihanak,
Hoiek guretzat egin zituztenak orai mundutik joanak,
Gure aldetik landa ditzagun ondokoentzat ordainak,
Hori egiten ez baldin bada gure semeek zer lanak!
12. Iduzki ona behar gaituzu gomeni bada argitu,
Gure lurrari gure indarrez pozoindurak garbitu,
Gure lur onak laguntzen partez kontrarioak baditu,
Eskual Herriak pena guziak nun behar ditu kabitu.
13. Orai ere eman dezagun konparazio batera,
Azi txar bat etortzen bada landare honen tartera,
Hura behar da kupire gabe ongi zainetik atera,
Harrika bota gehiago trabarik egingo ez duen partera.
14. Gure Jainkoak zabaldu zuen oihal ederra hau da lurra,
Eta berriz ere baluke lana zuzentzekotan makurra,
Fede onean bizi garenak jende gaixtoen beldurra,
Egjak ez du gehiago balio, nausitua da gezurra.

Senpereko Olandeiko Fifin-ek eta Sarako Ihteiko Urbistondo familiak emanak

Bertsu hauek Xantako-ko gólfa egin zelarik horrek sortu miseriak, ezbeharrak eta kezkek aipatzen dituzte. Mende hunen astean etxetiar eta bordari frango kanporatuak izan ziren Xantako-ko gólfa egiteko. Etxalde ttikiak zitezkeen laborari-arraintzaleak baitziren horko jendeak.

LXX

Gazte gira gazte

1. Gazte gira gazte hogoi urtetan,
Ez egon pentsaketan joaiteko armetan,
Goazen oro betan kuraia handitan.
4. Izatu zait barda zonbait kontseilari,
Utzak ideia hori eta deserta hadi.
Nik hori ez nahi uko Frantziari.

Kantu hunen egilea Pantxoa CARRERERen aitaxi omen da, Ganixun CARRERE Serresen bizitu zena.



2000.07.16. Laurent Elhorga, Jeanne Ibarra-Bereau, Pierrot Borda, Fifin Ibarra-Borda

Kantu honek 3 bertsu ditu arras ezagunak direnak , laugarren bat ere bada Uhartetxeberriko Marie zenak iloba Paskali erakatsia.

LXXI

Bozak Senperen, 1953an

1. Hemeretzi ehun pasatu eta berrogoi ta hamairu,
Apirilaren hogoi ta seia, sekulan oroitzeko,
Gure herrian gertatu zaiku gauza paregabeko,
Lista eder bat dugu bozetan airez aire pasatuko.
2. Aspaldiko urte hautan zagon gure herria tristerik,
Jende pobrek guk badakigu zonbat dugun sofriturik,
Behar orduak heldu zitzaizkun alderdi guzietarik,
Eta merian ezin atxeman behar zen argitzalerik.
3. Funts gabekotan funts gabeenak ziren gure gidariak,
Buru zutena deus ez zen eta denak haren iduriak,
Diru laguntzik ez zela behar ziren gogoan jarriak,
Gutiz gehienak etxeko jaunak ontasun onen jabeak.
4. Diru laguntzak antolatzen du beti herrian jendea,
Zerbait lan berri egitekotan guziendako obia,
Gure herria memento huntan ez zen beharrik gabia,
Jakinez geroz jaun haundi hoiki nola iten den galdia.
5. Beren gisan bazuten urguilu, kutxa zutela azkarra,
Hori da iragan hainitz urtez egin duten lan bakarra,
Bi miliun heina omen zuten hainitz gehiago beharra,
Azirik ez bada ereiten maiz errekolta meharra.
6. Mekanizien eta ostaler, xanparter eta postako,
Behar bezala emanak dira guziak ene gostuko,
Gutiz gehienak laborariak traba guziak hausteko,
Nihoren beldurrik ez dutenak lan berri bati lotzeko.
7. Egun hauetan gure herrian xaindamenduak badira,
Herriko etxean kontseilua, eta elizan berriz klabera,
Karitatea gure herrian ongi ospatzen ote da?
Gauza guziak zuzenak dira alde onez hartzen bada.
8. Gure etsia hartu ondoan denak eztituak gare,
Bat bertzeari agur egiten berriz hasiak baigare,
Bildutasuna ainitz hobea elizarat joan eta ere,
Memento batez hartzen ginuen “théâtre” haundi baten pare.

SENPEREKO



Euskal Kultur
Erakundearen
laguntzaz egindako
gehigarria

Gehigarria

Ur Xuri

(Jan Pier Soudre Iztilarte)

- 1 Ur xuri gainean zoin den eder Senpere
Ogei ehun jendez goiti han bizi gare
Euskaldunak gare oraino alere segur nahi ere
Ta federik gabe, euskararik gabe Senperen deus ez gare
- 2 Lanoki heldu da Senpererat Urxuri
Diolarik agur Amotze ta Urguri
Olha, Olhasori eta Hergarairi, plaza guziari
Pasatzean Artzirin, gero Ibarruni, azkenik Helbarruni.
- 3 Plekariak ere betidanik badire
Theofil, Santiago, Sein ta Xabatene
Behaztegi erne, Audeten lau seme, Iratzoki berme
Ondotik bortz seme, Etxegarai barne, Borda ta Ottoloine.
- 4 Senperen izan da bertsolari ausarki
Jaun erretor zena, jaun kalonje Zaldubi
Ganix Donamarti Matxin bertsolari Georges Larretxeberri
Ohore deneri Lou kaskoin Laurezni eta bertze ainitzi.



Mikelungo Auger
Ibarrak
kantatua

Airea:
Iduzkia denean zoin
den eder

Kaiolan nintzenian

1953an, Senpereko herriko bozetan bi listen arteko guduak zer errana sortu zuen kanpaina denboran. Huna hemen, Xalbador Yarzabal Senperrak zer zion:

- 1 Hemeretzi ehun pasatu eta berrogoi ta amairu
Apirilaren ogoi ta seia, sekulan orroitzeko
Gure herrian gertatu zaiku Gauza paregabeko
Lista eder bat dugu bozetan airez aire pasatuko.
- 2 Aspaldiko urte hautan zagon gure herria tristerik
Jende pobriek guk badakigu zonbat dugun sofriturik
Behar orduak heldu zitzaizkun alderdi guzietarik
Eta merian ezin atxeman behar zen argitzalerik.
- 3 Funts gabekotan funts gabehenakziren gure gidariak
Buru zutena deus ez zen eta denak haren iduriak
Diru laguntzik ez zela behar ziren gogoan jarriak
Gutiz gehienak etxeko jaunakotasun omen jabeak.
- 4 Diru laguntzak antolatzen dubeti herrian jendea
Zerbait lan berri egitekotan guziendako obia
Gure herria memento huntan ez zen beharrik gabia
Jakinez geroz jaun haundi hoiki nola hiten den galdia
- 5 Beren gisan bazuten ueguilu, kutxa zutela azkarra
Hori da hiragan hainitz urtez egin duten lan bakarra
Bi miliun heina omen zuten hainitz gehiago beharra
Azirik ez bada ereiten maiz errekolta meharra.
- 6 Mekanizien eta ostaler, xanparter eta postako
Behar bezala emanak dira guziak ene gustuko
Gutiz gehienak laborariak traba guziak hausteko
Nihoren beldurrik ez dutenak lan berri bati lotzeko.
- 7 Egun hauetan gure herrian xaindamenduak badira
Herriko etxean kontseilua, eta elizan berriz klamera
Karitatea gure herrian ongi ospatzen ote da
Gauza guziak zuzenak dira alde onez hartzen bada
- 8 Gure hetsia hartu ondoan denak ezituaq gare
Bat bertzeari agur egiten berriz hasiak baigare
Bildutasuna ainitz hobeia elizarat joan eta ere
Memento batez hartzen ginuen theatre haundi baten pare.
- 9 Azken bertsu hau nahi dut eman bihotza zabal zabala
Nere nahia gure jainkoak agian entzun dezala
Elgar maitatuz bizi gaitezen fedek dion bezala
Bake gozorik gure herrian ez da izanen bertzela.

Xalbador Yarzabal
Ibarrun Goietxea



BAT

9. Azken bertsu hau nahi dut eman bihotza zabal zabala,
Nere nahia gure jainkoak agian entzun dezala,
Elgar maitatuz bizi gaitezen fedea dion bezala,
Bake gozoric gure herrian ez da izanen bertzela.

10. *Monsieur le Maire de Saint Pée, maintenant je m'adresse à vous,
Paroles que je viens de commencer je voudrais finir jusqu'au bout,
Vous étiez considéré comme un bandit et comme un fou,
Et on a vu que tout St Pée a mis la confiance en vous.*

Xalbador YARZABAL. Ibarrun Goietxea



2000.07.16. P. Minaberi "Urkoi"

1953an, Senpereko herriko bozetan bi listen arteko guduak zer errana sortu zuen kanpaina denboran. Huna hemen, Xalbador Yarzabal Senpertarrak zer zion.

LXXII

Bozak eta esnea

E-gun Fran-tzi - an De-mo - kra-zi - an Jaun ba-tzu gu- re bo-zen i -
 hi - zi - an. Ez - ker, es- kuin, er - di - an, Min - tza - di - ak
 na-sai-an, A-gintz ai-nitz mi-hi-an U-sai-an Guk i-ku-si - an
 Zoin le - hen ja - rri pre - si - dent al - ki - an.

Airea: *Ene maitea xarmegarria, dohain ederrez zirare betia*

1. Egun Frantzian
 Demokrazian,
 Jaun batzu gure bozen ihizian.
 Ezker, eskuin, erdian,
 Mintzaldiak nasaian,
 Agintz ainitz mihian
 Usaian,
 Guk ikusian,
 Horiek jelosian,
 Zoin lehen jarri president alkian.
2. Pantxo da berme,
 Jakes da erne,
 Laborarien gizon da Gilome.
 Bortz mila pinta esne,
 Debeku urte barne,
 Duenak esne alde,
 Bat xume.
 Haundien besta
 Hor da prest-presta,
 Ehortziz ttikia eta herresta.

3. Jakesen lagun
Hor da Erramun,
Alderdi bereko dago kargudun:
Deputatu ezagun,
Minixtro herenegun,
Bertute-ta kaskodun,
Bihotzdun.
Ainitz euskaldun
Auhenez egun,
Bihotza trixte bozkatuko dugun.

4. Boza ematen
Gare harritzen,
Kontseilu ta zindikak izan ditin.
Guk ditugu hautatzen,
Horiek gobernatzen,
Lana egin dezaten,
Da zuzen.
Ez dut sinesten,
Eta ikusten,
Ttikia nehork lagunduko duen.


J.P. SOUDRE "Larreko"ren bertsuak. Senpere 1988-II-26.

LXXIII

Haitza

1. Haitza da gure sorlekuetan, Libertateko arbola,
Denei bihotza tristatzen zaiku, orhoituz erori zela,
Hura lurrerat ez utzi nahiz ixuri duten odola,
Lurraren pean haren erroeri indar eman dezatela.

Pello HALSOUETen eskutik



LEHEN BERTSOLERROEN ZERRENDA ALFABETIKOKI EMANA

Adixkide on bati baitiot hitzeman,	VI
Agorrila hasieran hasten naiz kantatzen,	LX
Agur, oi izar maitea iduzki eder begia,	IL
Aire xahar batean pertsu bat edo bi,	VIII
Aleman inperadore Guillaume aipatua,	LIX
Aments batean sartu izan naiz haurño baten erresuman,	XLVII
Amikuzeko Gilen khilo egileak,	XIII
Arotz abil bat bada plazan Bardoztarra,	XXXI
Aspaldiko denboretan gauaz eta beti,	XLIII
Behin mutilarekin nausi bat ari zen,	LVI
Berri bat ikasi dut plazer handiekin,	LXVI
Denborak egin gaitu guziak mundura,	LV
Dios te salbe ongi etorri,	I
Egun Frantzian,	LXXII
Egun oroz goizetan arratsetan,	XXXVII
Egundaino holakorik ez ahal da nihun gertatu,	XVIII
Egurra nuen Tonbako errekan,	XIV
Ene izpirituan hasten naiz pentsatzen,	LVIII
Ene maitia, xarmagarria,	L
Ene semiak ez zaitzela ostatueta abusa,	XXVI
Erdi nuzu hogeitalau urtetan,	XXIX
Eri naiz bihotzetik zombait urte huntan,	XLV
Errakozu ene partez milaka goraintzi,	II
Espainiako gerla nahi dut esplikatu,	LXII
Eskual Herritik huna jinik hemen bagirade ainitz,	III
Ezkontzeko hasita / Hau da desgrazia,	XXIV
Francoren xaparrotian,	LXI
Gazte gira gazte hogoi urtetan,	LXX
Gazte nintzelarik hemezortzi urtetan,	XXXVIII
Gizona zoin triste den ezkontza gabetan,	XXI
Haitza da gure sorlekuetan, Libertateko arbola,	LXXIII
Haundizki kolpatua bihotzean dut min,	LIII
Hemeretzi ehun pasatu eta berrogoi ta hamairu,	LXXI
Hemeretzi ehunta berroita borzgarrena,	LXIV
Hemeretzi mende ta erdi du jadanik,	XXXIII
Heriotza gauza iluna hari beha gaudelarik,	XXXV
Hogoi urtetara ari naiz hurbiltzen	LXVII

Huna bertsu berriak, orai emanak,	IV
Hunen bizimodua Senpere herrian,	XV
Iragan egun batez, ametsetan nintzen,	XLVI
Iragan igandez batez Senpere herrian,	XII
Kantore berri xarmant batzuek, hastera noha kantatzen,	XXVIII
Kantoreñoak berririk,	XLI
Kosta aldetik, ez da urrun Elizondo,	IX
Kristau bekatorea azken orenean,	XXXII
Lainopetik zauku izar on bat atera,	XLII
Larrunen arratsaldian izatu ondoan,	X
Lehengo batean esango dizut han zagon ilunabarra,	XXII
Letra bat izana dut sujeta horrela,	LXV
Mila bederatzi ehun eta berrogeita biga,	XVII
Mila bederatzi ehun eta hogoita batean,	XXIII
Mila bederatzi ehun eta hogoi ta zazpian,	XXX
Mila bederatzi ehun eta hogoita bigarrena,	XIX
Mila bederatzi ehun ta berrogeita bost garrenean,	LXIII
Mila pasata bederatzi ehun hogei ta sei urte da,	LXIX
Nahi ditut kantatu zonbeit pertsu berri,	XL
Nahi duzue jakin gure arbasoak,	VII
Neskatxa gazte inorant batek,	XXVII
Neskatxa gaztia hogoi urtetan adinez xarmegarria,	LII
Oi eper zango gorri airean joailea propia,	XLIV
Oraingo neska gaztien zortzi pertsu berri,	XVI
Othoi, egin zazue, zertaz diren kasu,	XXXIV
Paratu behar ditut bertso bat edo bi,	LVII
Pasaian izatu naiz doi-doia Frantzian,	LIV
Publikatzerat noa kantu hauekito jende horienak,	XXV
San Estebe egunean lehenbiziko buelta,	LXVIII
Senpenterrek pilota dute arras maite,	V
Sortu naiz iparrean, udaren hastean,	XLVIII
Sujet eder bat deklaritzen dut gaztek etsenplu hartzeko,	XXXIX
Ur xuri gainean zoin den eder Senpere,	XI
Urki zelaiko punta Bautista haundia,	XX
Xori errexiñoleta ederki kantatzen,	LI
Zortzi eta lau hamabi abenduan da eguberri,	XXXVI